Osakidetza



ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKAIRA

GALDERAK

1. 1978ko Espainiako Konstituzioak ezarritakoaren arabera, baieztapen hauetatik, zein <u>EZ</u> da zuzena?

a) Aurretiazko baimena behar da bilera-eskubidea egikaritzeko.
b) Sorterriz espainiarra denari ezin zaio bere naziotasuna kendu.
c) Egoitza bortxaezina da.
d) Bilerak iraganbide publikoetan egitea debekatu ahal izango da, pertsona eta ondasunen arriskuaz, ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarridunak daudenean.

2. 1978ko Konstituzioaren arabera:

a) Estatuko hizkuntza ofiziala gaztelania da.
b) Espainiar guztiek gaztelania jakiteko eta erabiltzeko duten betebeharra aitortzen da.
c) Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira Estatuan, beren autonomia-estatutuen arabera.
d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

3. 1978ko Konstituzioaren arabera:

a) Asilo-eskubidea Espainiako eta atzerriko herritar guztiei aitortzen zaie.
b) Aberrigabeei soilik aitortzen zaie asilo-eskubidea.
c) Asilo-eskubidea ez da 1978ko Konstituzioan jasotzen.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

4. 1978ko Konstituzioaren arabera:

a) Ordenamendu juridikoaren balio nagusiak dira askatasuna, justitzia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
b) Antolamendu juridikoaren balio nagusiak dira askatasuna, segurtasun juridikoa, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
c) Ordenamendu juridikoaren balio nagusiak dira askatasuna, justizia, berdintasuna eta arau-hierarkia.
d) Ordenamendu juridikoaren balio gorenak dira justizia, berdintasuna, aniztasun politikoa eta legezkotasuna.

5. 1978ko Konstituzioaren arabera:

a) 14. artikuluan baino ez da aitortzen espainiar guztien berdintasun formala.
b) Botere publikoen esku-hartzea eskatzen da, berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin.
c) 14. artikuluan espainiar guztien berdintasun formala eta berdintasun materiala aitortzen dira.

d) 14. artikuluan aurreikusitako berdintasun formalarekin batera, espainiar guztien legearen aurreko berdintasuna aitortzen da 9.2 artikuluan.

6. 1978ko Konstituzioaren arabera:

a) Espainiako hizkuntza guztiak, gaztelaniarekin batera, estatuko hizkuntza ofizial izango dira, eta espainiar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea.
b) Autonomia-estatutuek autonomia-erkidegoen bandera eta ikur berezkoak onartuko dituzte, eta beren eraikin publiko eta ekintza ofizialetan jarriko dira.
c) Espainiako estatuaren eredu politikoa parlamentu-monarkia da.
d) Espainiarra denari ezin zaio bere naziotasuna kendu.

7. 1978ko Espainiako Konstituzioak ezaritakoaren arabera, aurreneurrizko atxilotzeak gehienez iraun dezakeen epea:

a) Hirurogeita hamabi ordu.
b) Berrogeita zortzi ordu.
c) Agintaritza judizialak zehazten duena.
d) Legeak ezartzen duena.

8. Antolamendu militarraren oinarriak, Konstituzioaren printzipioen arabera, honela arautu behar dira:

a) Legez.
b) Lege organiko bidez.
c) Erregelamendu bidez.
d) Dekretu bidez.

9. Konstituzioak hitzez hitz dioenaren arabera, honako hauek dira gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen titularrak:

a) Guztiak.
b) Herritarrak.
c) Espainiarrak.
d) Pertsona guztiak.

10. 1978ko Konstituzioaren arabera:

a) Herriaren Defendatzailea, Gorte Nagusietako goi-mandataria da.
b) Herriaren Defendatzailea, Diputatuen Kongresuko goi-mandataria da.
c) Herriaren Defendatzailea, Nazioko Gobernuaren goi-mandataria da
d) Herriaren Defendatzailea organo independentea da.

11. 1978ko Konstituzioaren arabera:

a) 22. artikuluaren babesean eratutako elkarteak erregistro batean inskribatu beharko dira, eraketa-ondorioetarako.

b) 22. artikuluaren babesean eratutako elkarteak erregistro batean inskribatu beharko dira, ondorio juridikoetarako.
c) 22. artikuluaren babesean eratutako elkarteak ez dira inongo erregistrotan inskribatu behar, Barne Ministeritzakoan izan ezik.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

12. Hezkuntzarako eskubidea 1978ko Konstituzioan:

a) 24. artikuluan dago jasota.
b) 18. artikuluan dago jasota.
c) 27. artikuluan dago jasota.
d) 16. artikuluan dago jasota.

13. 1978ko Konstituzioaren arabera:

a) Eskaerak egiteko eskubidea aitortzen du, babes-errekurtsoaren bidez babes daitezkeen oinarrizko eskubideen artean.
b) Jada ez du aitortzen eskariak egiteko eskubidea.
c) Eskariak egiteko eskubidea oinarrizko eskubidetzat aitortzen du, baina ezin da babes-errekurtso bidez babestu.
d) Eskatzeko eskubidea aitortzen du, politika sozial eta ekonomikoaren gida-printzipioen barruan.

14. 1978ko Konstituzioaren arabera, osasuna babesteko eskubidea:

a) Oinarrizko eskubidea da, eta lehentasuneko prozedura sumarioaren bidez babes daiteke.
b) Oinarrizko eskubidea da, eta lehentasuneko prozeduraren eta prozedura laburtuaren bidez eta babes-errekurtsoaren bidez lor daiteke haren babesa.
c) Oinarrizko eskubide bat da, jurisdikzio-prozedura arrunten bidez bakarrik babestu daitekeena.
d) Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidaria da.

15. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, zein da autonomia erkidegoaren izena?

a) Euskal Herria.
b) Euskadi zein Euskal Herria.
c) País Vasco Estatutuaren gaztelaniazko bertsioan.
d) Euskal Autonomia Erkidegoa.

16. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, nola finkatuko da Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeen egoitza?

a) Lehendakariari dagokio.
b) Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez.
c) Euskal Herria osatzen duten lurralde historikoetako bakoitzari dagokio.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira

17. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikori jarraikiz:

a) Soilik Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea.
b) Nafarroak eskubidea du Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan partaide izateko, Konstituzioaren Laugarren Xedapenean Gehigarrian finkatutako jardunbideari jarraituz.
c) Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez finkatuko da Euskal Herriko Autonomia Erkidego osorako erakundeen egoitza.
d) Euskal Herriko ikurrina gurutzebikoa da, hondo zurian zeharkako gurutze berdea eta gainean gurutze gorria dituena.

18. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan guztiz bere lurralde barruan kokaturiko beste lurralde edo udalerri batzuk Euskal Autonomia Erkidegoari gehitzeko baldintza hauetako zein EZ da zuzena?

a) Delako Udalerri edo lurralde horretako biztanleek hala erabaki dezatela, gehiengo osoz onartutako erreferendum bidez.
b) Estatuko Gorte Nagusiek Lege Organiko bidez onar dezatela.
c) Eusko Legebiltzarrak onar dezala.
d) Doakion udalak edota udalen gehiengoak atxikimendua eskatu dezala.

19. Euskal herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrei dagokienez, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak EZ du honako baieztapen hau jasotzen:

a) Euskal herri-aginteek bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute.
b) Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak Estatutu honetan finkatutakoak dira.
c) Euskal herri-aginteek, beren eskumenen esparruan, enplegua gehitzea eta ekonomiaren oreka sustatzeko neurri lagungarriak hartuko dituzte.
d) Euskal herri-aginteek herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

20. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, zeren bidez finkatuko da Euskal Herriko Autonomia Erkidego osorako erakundeen egoitza?

a) Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez.
b) Estatuko Gorte Nagusien Lege Organiko baten bidez.
c) Lehendakariaren dekretu bidez.
d) Lehendakariaren errege-dekretu bidez.

21. Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren arabera, beste lurralde eta udalerri batzuk Euskal Autonomia Erkidegoari atxiki ahal izateko, beharrezkoa izango da (adierazi erantzun okerra):

a) Lurralde edo udalerri hori Euskal Herriko lurralde barruan guztiz kokatzea.
b) Euskal Autonomi Erkidegoko biztanleek erreferendumean onartzea.
c) Estatuko Gorte Nagusiek Lege Organiko bidez onartzea.
d) Udalerri edo lurralde horretako biztanleek hala erabakitzea erreferendum bidez eta emandako baliozko botoen gehiengoz onartzea.

22. Euskal Herriko Estatutuaren arabera, adierazi euskarari buruzko baieztapen hauetatik zein den okerra:

a) Euskara hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala.
b) Euskal Herriko biztanle guztiek gaztelania eta euskara jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute.
c) Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun sozio-linguistikoa kontutan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute.
d) Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofizial da.

23. Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, zein da Euskal Herriko Autonomia Estatutuak betetzen duen zeregina?

a) Euskadiko oinarrizko erakunde-araua da.
b) Autonomia Erkidegoko Administrazioaren erakunde-antolaketa jasotzen duen barne-erregelamendua da.
c) Eusko Legebiltzarraren lege bat da.
d) Arau autonomiko gorena da, Espainiako Konstituzioa baino maila handiagokoa Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan.

24. Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, nork du Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea?

a) Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiak bakarrik, gaur egun integratuta dagoen bezala.
b) Nafarroak ez du EAEko kide izateko eskubiderik, baina Konstituzioaren laugarren xedapen iragankorrean ezarritako prozeduraren arabera eskatu ahal izango luke.
c) Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroak.
d) Nafarroak ez du EAEko kide izateko eskubiderik, baina Estatutu honetan ezarritako prozeduraren arabera erabaki dezake kide izatea.

25. Zein da Autonomia Estatutuan (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutakoan) Euskal Autonomia Erkidegoak jasotzen duen izen ofiziala?

a) *País Vasco* du izena gaztelaniazko bertsioan, eta Euskadi euskarazko bertsioan.
b) Euskal Herria.
c) Euskadi zein *Vasconia*.
d) Aurreko hiru erantzunak okerrak dira.

26. Ondorengo baieztapenetatik, zein EZ da zuzena, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan beste lurralde edo udalerri batzuk Euskal Autonomia Erkidegoari eransteko ezarritakoaren arabera?

a) Ez da onartzen lurralde edo udalerri berririk sartzea, salbu eta horiek guztiz EAEko lurraldean kokatuta badaude.
b) Lurralde edo udalerri hori kokaturik dagoen Erkidego edo Probintziari entzun beharko zaie.
c) Estatuko Gorte Nagusiek Lege Organiko bidez onartzea beharrezkoa izango da.
d) Baimena eman beharko dute, bai gehitu beharreko lurraldeko edo udalerriko biztanleek, bai EAEko biztanleek, horretarako deitutako erreferendum bidez.

27. Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak:

a) Konstituzioan eta Euskal Autonomia Estatutuan finkatutakoak dira.
b) Euskal Autonomia Estatutuan finkatutakoak dira, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera interpretatzen dira.
c) Espainiak berretsitako nazioarteko itunetan onartutakoak dira.
d) Espainiako Konstituzioan finkatutakoak dira.

28. Adierazi ondorengo baieztapenetatik zein den zuzena Euskal Herriko Autonomia Estatutuan (EHAE) euskal herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrei buruz ezarritakoari dagokionez:

a) EHAEk mugak ezartzen dizkie euskal botere publikoei, herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilerari dagokionez.
b) EHAEk betebehar positiboak ditu botere publikoentzat, jarduteko agindu gisa formulatuak, eta ez abstentzio-betebehar negatibo hutsak.
c) EHAEn ezarritakoak oinarrizko eskubideen arloko Estatuko legeria ordezten du, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta Espainiak gai horri buruz berretsitako tratatuen aurka ez doan neurrian.
d) Euskal botere publikoek arautuko dute Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean herritarrek dituzten oinarrizko eskubide eta askatasunen erabilera.

29. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, barne-osasunaren arloan, Euskal Herriari dagokio:

a) Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea.
b) Estatuko legeria betearaztea.
c) Erregelamendu ahalmena.
d) Bakarreko eskumena.

30. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikori jarraikiz:

a) Ez da aurreikusten Autonomia Estatutua erreformatzea.
b) Estatutuaren erreforma egiteko ekimena Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari edo Espainiako Estatuko Gorte Nagusiei dagokie.
c) Estatutuaren erreforma bost urtean behin egin behar da.
d) Autonomia Estatutuaren erreformak ez du Gorte Nagusien onarpenik behar.

31. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren erreformari dagokionez, baieztapen hauetatik, zein da ZUZENA?

a) Espainiako Estatuko Gorte Nagusiei, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari, legebiltzarkideen gehiengo soilaren proposamenez, dagokie erreformaren ekimena.
b) Eusko Legebiltzarrak onartu behar du erreforma-proposamena, legebiltzarkideen bi herenek osatutako gehiengo kalifikatuz.
c) Eusko Legebiltzarrak onartu ostean, Gorte Nagusiek onartuko dute erreforma lege organiko baten bidez.
d) Gorte Nagusietara bidali aurretik, Euskadiko hautesleek onartu beharko dute erreferendum batean.

32. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, adierazi gai hauetako zeinetan EZ DUEN Euskadik eskumen esklusiboa:

a) Barne-uretako arrantza, itsaski-bilketa eta arrain-hazkuntza, ehiza eta ibai eta aintziretako arrantza.
b) Gizarte-laguntza.
c) Zientzia- eta teknika-ikerketa, Estatuarekin koordinaturik.
a) Barne-osasuna.

33. Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren erreformari buruzko baieztapenen artean, zein da zuzena?

a) Erreforma-ekimena Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari ala Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiei dagokie.
b) Estatuak esku eman ahal izango dio Eusko Jaurlaritzari, esanbidezko eskuordetza emanez, Estatutua erreformatzeko beharrezkoa den erreferendumerako deia egiteko.
c) Erreforma-proposamena, Eusko Legebiltzarrak onartu ondoren, Gorte Nagusietara eraman behar da, lege arrunt bidez onar dezaten, eta, azkenik, erreferendum bidez onartu beharko da.
d) Erreforma-proposamena Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari ala Gorte Nagusiei dagokie, eta, behin Eusko Legebiltzarrak onartu ondoren, erreferenduma egin daiteke.

34. Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du Estatuaren oinarrizko legeria lege bidez garatu eta bere lurraldean betearazteko gai honetan:

a) Ingurumena eta ekologia.
b) Jabetza intelektuala eta industria-jabetza.
c) Produktu farmazeutikoei buruzko Estatuko legeria.
d) Espetxe-legeria.

35. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera (abenduaren 18ko 3/1979ko Lege Organikoa), Estatutuaren erreformaren kasuan:

a) Eusko Legebiltzarrari dagokio ekimena, legebiltzarkideen heren baten proposamenez, edo Eusko Jaurlaritzari.
b) Eusko Legebiltzarrari dagokio ekimena, legebiltzarkideen bostenaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzari ala Espainiako Estatuko Gorte Nagusiei.
c) Eusko Legebiltzarrari dagokio ekimena, legebiltzarkideen gehiengo osoaren proposamenez.
d) Eusko Legebiltzarrari ala Espainiako Estatuko Gorte Nagusiei dagokie, kideen gehiengo osoaren proposamenez.

36. Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du:

a) Barne-osasun arloan.
b) Gizarte-laguntza arloan.
c) Lan-legeria arloan.
d) Gizarte Segurantza arloan, honen araubide ekonomikoa mamitzen duten arauak izan ezik.

37. Estatutuaren Erreformaren xedea Euskal Herriaren aginteen antolaketaren aldaketa besterik ez balitz eta Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren arteko harremanak edota lurralde historikoen foru-araubide berezia ukituko ez balituzke, honela jokatu ahal izango da (adierazi erantzun OKERRA):

a) Eusko Legebiltzarrak erreforma-egitasmoa prestatuko du.
b) Gorte Nagusiei eta Batzar Nagusiei galdetuko zaie.
c) Galdera jaso dutenetik hogeita hamar eguneko epean kontsultatutako organo batek ere ez badu adierazten erreformak eragin dionik, proposatutako testuari buruzko erreferendumerako deia egingo da, behar bezala baimenduta.
d) Eusko Legebiltzarraren lege bidez onartu beharko da.

38. Euskal Herriko Autonomia Estatutuan ezarritakoaren arabera, gai hauetako zeinetan EZ du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa?:

a) Udalbarrutien mugak, lurralde historikoei dagozkien ahalmenei kalterik eragin gabe.
b) Euskal Herriko arrantza-sektorearen antolamendua.
c) Bere autogobernu-erakundeen antolaketa, araubidea eta jarduera, Estatutu honetako arauen esparruan.
d) Euskal Herriak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauak eta administrazio-jardunbideari zein ekonomia-administraziokoari dagozkion arauak.

39. Euskal Herriko Autonomia Estatutuan ezarritakoaren arabera, hirigintzaren eta etxebizitzaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio:

a) Estatuaren oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta bere lurraldean betearaztea.
b) Estatuaren legeria betearaztea.
c) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esklusiboa da.
d) Erregelamendu ahalmena.

40. Zer ezartzen du Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak Estatutua erreformatzeko prozeduran erreferenduma egiteari buruz? Adierazi erantzun zuzena:

a) Estatuko Gorte Nagusiek lege organiko bidez onartu ondoren egingo da erreferrenduma.
b) Erreferenduma egitea aukerakoa da, ez da nahitaezkoa.
c) Eusko Legebiltzarrak erreforma-proposamena onartu ondoren egingo da erreferenduma.
d) Autonomia Estatutuak ez du ezer esaten erreferenduma egiteko beharraz.

41. Euskal Herriko Autonomia Estatutuan ezarritakoaren arabera, Euskal Herriaren eskumen esklusiboko gaietan:

a) Estatuko Zuzenbideak lehentasuna izango du beti.
b) Zuzenbide autonomikorik ez dagoenean, Estatuko Zuzenbidea supletorio moduan aplikatuko da.
c) Estatuko Zuzenbidea ezin da inola ere aplikatu.
d) Estatuko Zuzenbidea supletorio moduan aplikatuko da soilik Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren artean partekatutako eskumenetan.

42. Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio (adierazi erantzun OKERRA):

a) Gizarte-laguntza arloan Estatuko legeria betearaztea.
b) Produktu farmazeutikoei buruzko Estatuko legeria betearaztea.
c) Barne-osasun arloan, Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea.
d) Gizarte Segurantzaren arloan, Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa mamitzen duten arauak izan ezik.

43. Lehendakariaren kargu-uzteari dagokionez, adierazi zein den erantzun zuzena, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen arabera:

a) Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde orokorrak egiten direnean bakarrik utziko du kargua.
b) Lehendakariak kargua utziko du Legebiltzarrak gehiengo soilez zentsura-mozioa onartzen badu.
c) Lehendakariak kargua utziko du dimisioa emanez gero, Legebiltzarraren konfiantza galdu izanagatik, edo heriotzagatik.
d) Lehendakariak automatikoki uzten du kargua Eusko Legebiltzarra desegiten denean, salbuespenik gabe.

44. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak lehendakariaren eginkizunak etetea aurreikusten du. Horri dagokionez, nolakoa izango da lehendakariak bere eginkizunak betetzeko ezintasunari buruzko Jaurlaritzaren erabakia?

a) Kideen hiru bosteneko gehiengoaz.
b) Kideen lau bosteneko gehiengoaz.
c) Kideen hiru laurdeneko gehiengoaz.
d) Jaurlaritzak ez du eskumenik lehendakariak bere eginkizunak betetzeko duen ezintasuna erabakitzeko

45. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak ezarritakoaren arabera, Lehendakaria:

a) Legebiltzarrak hautatuko du eta Estatuko Gobernuko presidenteak izendatuko du.
b) Legebiltzarrak hautatuko du legebiltzarkideen artetik eta Erregeak izendatuko du errege-dekretu baten bitartez.
c) Legebiltzarrak hautatuko du legebiltzarkideen artetik eta Erregeak izendatuko du lege baten bitartez.
d) Legebiltzarrak hautatu eta izendatuko du legebiltzarkideen artetik errege-dekretu baten bitartez.

46. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezarritakoaren arabera, Lehendakaritzaren bitartekotasun-egoerak EZIN izango du, inola ere,

a) Lau hilabete baino gehiago iraun.
b) Bi hilabete baino gehiago iraun.
c) Hiru hilabete baino gehiago iraun.
d) Hilabete bat baino gehiago iraun.

47. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzari:

a) Dagokio Gobernu-egitasmoa finkatzea.
b) Legebiltzarrera bidaltzeko lege-proposamenak onartzea edo baztertzea dagozkio, Legebiltzarraren araudiak ezarritako baldintzen arabera.
c) Dagokio legegintzarako eskuordetza, legegintzako dekretuen bidez, lege honek ezarritako moduan.
d) Dagokio legegintzarako eskuordetza, lege-dekretuen bidez, lege honek ezarritako moduan.

48. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezarritakoaren arabera:

a) Lehendakariaren aldi baterako absentziek Legebiltzarraren aldez aurreko baimena beharko dute.
b) Jaurlaritzan bi sexuek % 50ko ordezkaritza izango dute, gutxienez,
c) Jaurlaritzan bi sexuek % 40ko ordezkaritza izango dute, gutxienez.
d) Lehendakariak bi aste baino luzaroago kanpoan egon behar badu, Legebiltzarrak aurretik baimena eman beharko dio.

49. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen arabera, Lehedakariak:

a) Politika-helburu orokorrak finkatzen ditu.
b) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa zuzentzen du.
c) Legegintzako ekimena, betearazteko funtzioa eta erregelamenduak egiteko ahalmena ditu.
d) Estatuaren ordezkaritza arrunta du autonomia-erkidegoan.

50. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezarritakoaren arabera, adierazi Jaurlaritzaren bilkurei dagokienez erantzun OKERRA:

a) Jaurlaritzaren bilkurak, baliozkotasunez eratuak izateko, lehendakaria edo haren ordezkoa eta Jaurlaritzako kideen erdia gutxienez bertan izatea beharrezkoa izango da.
b) Jaurlaritzari aurkeztutako dokumentuak ezkutukoak eta isilpekoak izango dira beti, eta Gobernuak ezin izango ditu inola ere publiko egin.
c) Jaurlaritzaren bilkuretarako deialdietan gai-zerrenda ere sartuko da, lehendakariaren jarraibideen arabera moldatuta eta Jaurlaritzako Idazkariak izenpetuta.
d) Jaurlaritzaren bilkuretara lehendakariak baimendutako adituak joan ahal izango dira.

51. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren egitura orokorra kontuan hartuta, adierazi ondoko zuzendaritza hauetatik zein EZ dagoen Osasun Sailburuordetzan:

a) Ikerketa, Berrikuntza eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.
b) Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
c) Farmazia Zuzendaritza.
d) Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren Zuzendaritza.

52. 319/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena, kontuan hartuta, adierazi ondokoen artean zein egiteko EZ dagokion Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari:

a) Sailburuaren lan-programa eta -jarduna antolatzea eta horri jarraipena egitea.
b) Erakundeen arteko eta sailen arteko lankidetza alor soziosanitarioan.

c) Saileko ekitaldi ofizialak eta protokolokoak antolatzea, hargatik eragotzi gabe Lehendakaritzari dagozkionak.
d) Sailak Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Batzordearekin izaten dituen harremanak bideratzea.

53. Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuaren arabera, izendapen libreko lanpostuak betetzea, aurretiaz deialdi publikoa eginda, baita behin-behineko langileak izendatzea ere, dagokie:

a) Osasun Sailburuordetzari.
b) Sailburuari.
c) Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzari.
d) Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzei.

54. Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalaren barruan, zeini dagokio zuzendaritza bakoitzarentzat dituen kudeaketa publikoko politikak definitzea?:

a) Sailburuari.
b) Sailburuordetza bakoitzaren titularrari.
c) Osasuneko sailburuordeari, beti.
d) Zuzendaritza bakoitzaren buru den zuzendariari.

55. Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuaren arabera, honako egiteko eta jardun-arlo hauetatik zein EZ dagokio Osasun Sailari?

a) Adikzioen prebentzioa.
b) Berrikuntza eta ikerketa sanitarioa.
c) Jarduera fisikoa sustatzea.
d) Osasun publikoa: osasuna zaintzea, babestea eta sustatzea.

56. Urriaren 29ko 319/2024 Dekretuak ezartzen duen Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalaren arabera, aholkularitza-kontseilu hauetako zein EZ dago Osasun Sailari atxikita?

a) Euskadiko Txertaketarako Aholku Batzordea.
b) Erabilera Terapeutikoko Baimenen Euskal Batzordea.
c) Minbiziaren Euskadiko Aholku Batzordea.
d) Euskadiko Medikuntza Pertsonalizatua Planifikatu eta Kudeatzeko Batzordea.

57. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, epeak egunetan adierazten direnean, honela ulertuko dira:

a) Egun naturalak, kontrakoa xedatzen ez bada.
b) Egun baliodunak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak kanpo utzita.
c) Egun naturalak, larunbatak eta igandeak barne, baina jaiegunak kanpo utzita.
d) Egun baliodunak, larunbatak barne eta igandeak eta jaiegunak bakarrik kanpo utzita.

58. 39/2015 Legearen arabera, lege honen aplikazio-esparru subjektiboak honako hauek hartzen ditu barne:

a) Estatuko Administrazio Orokorra eta Autonomia Erkidegoak soilik.

b) Sektore publikoa, Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegoak, Toki Entitateak eta sektore publiko instituzionala barne.
c) Administrazio lurraldekoak soilik, sektore publiko instituzionala kanpo utzita.
d) Administrazio Publiko lurraldekoak eta Zuzenbide Publikoko Korporazioak soilik.

59. 39/2015 Legearen ondorioetarako, Administrazio Publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute:

a) Adin nagusiko pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek soilik.
b) Zuzenbide zibilaren edo merkataritza-zuzenbidearen arabera jarduteko gaitasuna dutenpertsona fisiko edo juridikoek, adingabeek ordenamendu juridikoak aurreikusitako kasuetan, eta legeak berariaz ezartzen duenean nortasun juridikorik gabeko entitateek.
c) Eskubide subjektiboen defentsan jarduten duten pertsona fisikoek soilik.
d) Interes legitimo indibiduala dutenek bakarrik.

60. 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen aurrean ordezkaritzari dagokionez:

a) Pertsona juridikoek soilik jardun dezakete beste pertsona batzuen ordezkari gisa.
b) Ordezkaritzak beti eragozten du Administrazioak interesdunarekin zuzenean harremanak izatea.
c) Jarduteko gaitasuna duten interesdunek ordezkari baten bidez jardun dezakete, eta Administrazio-jarduerak ordezkariarekin ulertuko dira, interesdunak kontrakoa adierazi ezean.
d) Ordezkaritza soilik eskritura publiko bidez egiaztatu daiteke.

61. 39/2015 Legearen arabera, honako egintza hauek arrazoitu beharko dira:

a) Administrazio-egintza guztiak, salbuespenik gabe.
b) Administrazio-bidea amaitzen duten egintzak soilik.
c) Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak mugatzen dituzten egintzak, besteak beste, legeak aurreikusitako kasuetan.
d) Zehapen-egintza irmoak soilik.

62. 39/2015 Legearen arabera, administrazio-egintzak:

a) Ahoz emango dira lehentasunez, zehapen-prozeduretan izan ezik.
b) Idatziz emango dira bitarteko elektronikoen bidez, salbu eta haien izaerak adierazpen- edo egiaztapen-modu egokiago bat eskatzen badu.
c) Beti paperezko euskarrian emango dira, interesdunak berariaz baimentzen ez badu.
d) Edozein modutan eman daitezke, organoaren borondatea jasota badago.

63. 39/2015 Legearen arabera, Zuzenbide Administratiboaren mende dauden Administrazio Publikoen egintzak:

a) Interesdunari jakinarazten zaizkionean bakarrik izango dituzte ondorioak.
b) Baliogabetzat joko dira errekurtso-epea igaro arte.
c) Baliozkoak direla presuntzat joko dira eta ematen diren egunetik izango dituzte ondorioak, bestelakorik ezartzen ez bada.
d) Argitalpen ofizialetik aurrera baino ez dute ondoriorik izango.

64. 39/2015 Legearen arabera, administrazio-egintzak exekutiboak izango dira:

a) Interesdunari jakinarazten zaizkionetik aurrera, kasu guztietan.
b) Administrazio-bidea amaitzen dutenean.

c) Ematen direnetik aurrera, bestelakorik xedatzen ez bada edo haien eraginkortasuna jakinarazpenaren, argitalpenaren edo goi-organo baten onespenaren menpe jartzen bada.
d) Izaera irmoa hartzen dutenean bakarrik.

65. 39/2015 Legearen arabera, administrazio-egintzek atzeraeragina izan dezakete:

a) Inoiz ez.
b) Beti interesdunari mesede egiten badiote, nahiz eta hirugarrenen eskubideak kaltetu.
c) Baliogabetutako egintzen ordez ematen direnean eta beste pertsonen eskubide edo interes legitimoak kaltetzen ez direnean.
d) Lege-mailako arau batek hala xedatzen duenean bakarrik.

66. 39/2015 Legearen arabera, ordenamendu juridikoaren aurkako edozein urraketa duten administrazio-egintzak:

a) Zuzenbide osoz deusezak izango dira kasu guztietan.
b) Deuseztagarriak izango dira, salbu eta zuzenbide osoz deuseztasunaren kasuren bat gertatzen bada.
c) Juridikoki existitzen ez diren egintzak izango dira.
d) Ez dute inolako ondoriorik sortuko.

67. 39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozeduran EZ dira interesduntzat hartzen:

a) Eskubide edo interes legitimo indibidual edo kolektiboen titular gisa prozedura sustatzen dutenak.
b) Prozedura hasi ez arren, hartzen den erabakiarekin eraginpean gera daitezkeen eskubideak dituztenak.
c) Legeak aitortzen duen moduan interes ekonomiko eta sozialen ordezkari diren elkarteak eta erakundeak.
d) Edozein herritar, legezkotasunaren defentsan.

68. 39/2015 Legearen arabera, honako hauek deusezak dira:

a) Ordenamendu juridikoaren aurkako edozein urraketa duten administrazio-egintzak.
b) Helburua lortzeko ezinbesteko baldintza formalak ez dituzten edo interesdunen defentsarik eza eragiten duten egintzak.
c) Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza espresu edo presuntiboak, eskubideak edo ahalmenak eskuratzen direnean funtsezko baldintzak bete gabe.
d) Legeek ezarritako epeetatik kanpo emandako egintzak.

69. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, espediente administratibo elektronikoa:

a) Prozedura izapidetzen den bitartean bakarrik gorde behar da.
b) Interesdunek aurkeztutako dokumentuak bakarrik jaso behar ditu.
c) Barne hartzen dituen dokumentuen zerrenda ordenatua izan behar du, haien formatua edozein dela ere.
d) Beste administrazio-organo batzuek egindako txostenak baztertu ditzake.

70. Administrazio-prozedura batean, ebazpena eman aurretik, interesdunei entzunaldi-izapidea eman behar zaie. Adierazi zein kasutan baztertu daitekeen prozedura hau:

a) Prozedura premiazkoa denean.
b) Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duenean.
c) Prozedura zehatzailea denean.
d) Ebazpenean interesdunak alegatutako egitate eta alegazioez bestelakorik kontuan hartzen ez denean.

71. 39/2015 Legearen arabera, izapidetze sinplifikatuaren bidez tramitatutako prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea honako hau izango da:

a) 15 egun.
b) 30 egun.
c) 2 hilabete.
d) 3 hilabete.

72. 39/2015 Legearen arabera, prozedura baten ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea:

a) Sei hilabetetik gorakoa ezin izango da izan, lege-mailako arau batek edo Europar Batasuneko Zuzenbideak hala ezartzen badu izan ezik.
b) Hiru hilabetetik gorakoa ezin izango da izan, lege-mailako arau batek edo Europar Batasuneko Zuzenbideak hala ezartzen badu izan ezik.
c) Sei hilabetetik gorakoa ezin izango da izan, arau erregelamenduzko batek hala ezartzen badu izan ezik.
d) Hiru hilabetetik gorakoa ezin izango da izan, arau erregelamenduzko batek hala ezartzen badu izan ezik.

73. Mariak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari 45.000 euroko kalte-ordaina eskatzen dio. Zortzi hilabete igaro ondoren, ez du jakinarazpenik jaso. Zein da erantzun zuzena?

a) Eskaera baietsitzat jo dezake.
b) Prozedura iraungitzat jo dezake.
c) Prozedura etenda dagoela jo dezake.
d) Eskaera ezetsitzat jo dezake.

74. 39/2015 Legearen arabera, ofizioz hasitako prozeduretan:

a) Epea igarotzeak prozeduraren iraungipena eragingo du.
b) Preskripzioa eragingo du.
c) Interesdunek eskaera onartutzat jo dezakete.
d) Interesdunek eskaera ezetsitzat jo dezakete.

75. 39/2015 Legearen arabera, jakinarazpena interesdunaren helbidean egiten denean eta lehenengo saiakera 15:00ak baino lehen egin bada:

a) Bigarren saiakera 17:00etatik aurrera egin beharko da eta gutxienez hiru orduko tartea egon beharko da.
b) Bigarren saiakera 15:00etatik aurrera egin beharko da eta gutxienez hiru orduko tartea egon beharko da.
c) Bigarren saiakera 17:00etatik aurrera egin beharko da eta gutxienez bi orduko tartea egon beharko da.



d) Bigarren saiakera 15:00etatik aurrera egin beharko da eta gutxienez bi orduko tartea egon beharko da.

76. 39/2015 Legearen arabera, prozedura hasi aurretik hartutako neurri behin-behinekoak:

a) Froga-onarpenaren izapidean baieztatu behar dira.
b) Ebazpen-proposamenean baieztatu behar dira.
c) Ebazpen-proposamenean edo hasiera-ebazpenean aldatu edo indargabetu behar dira.
d) Prozedura hasteko akordioan baieztatu behar dira 15 eguneko epean.

77. 39/2015 Legearen arabera, salaketa-egileak arau-haustean parte hartu badu eta beste arau-hausle batzuk badaude:

a) Zehapena kendu ahal izango zaio baldintza jakin batzuetan.
b) Zehapena beti murriztu beharko zaio.
c) Ezingo zaio inolako abantailarik eman.
d) Beti zigortu beharko da.

78. 39/2015 Legearen arabera, txostenak:

a) Derrigorrezkoak eta lotesleak dira.
b) Derrigorrezkoak eta ez lotesleak dira.
c) Aukerakoak eta lotesleak dira.
d) Aukerakoak eta ez lotesleak dira.

79. 39/2015 Legearen arabera, jakinarazpenaren abisu elektronikoa ez egiteak:

a) Egintza baliogabetzen du.
b) Jakinarazpena baliogabe egiten du.
c) Ez du eragozten jakinarazpena baliozkoa izatea.
d) Egintza deuseztagarri bihurtzen du.

80. Administrazio batek administrazio-egintza bat zuzenbide osoz deuseza dela ohartzen denean, indarrean dagoen araudiaren arabera, zer jarduketa egin dezake?

a) Ofizioz berrikuspen-prozedura hastea, dagokion organo aholku-emailearen irizpena jaso ondoren.
b) Deuseztasuna zuzenean deklaratzea, inolako prozedurarik gabe.
c) Deuseztasuna interesdunak eskatuta soilik deklaratzea.
d) Egintza baliogabetzea oportunitate-arrazoiengatik.

81. 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoek interes publikoarentzat kaltegarritzat jo ahal izango dituzte deuseztagarriak diren egintza onuragarriak:

a) Edozein unetan.
b) Egintza eman zenetik lau urteko epean.
c) Egintza eman zenetik urtebeteko epean.
d) Interesdunak eskatzen duenean bakarrik.

82. 39/2015 Legearen arabera, gora jotzeko errekurtsoa ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea:

a) Hilabete bat.
b) Bi hilabete.
c) Hiru hilabete.
d) Sei hilabete.

83. 39/2015 Legearen arabera, gora jotzeko errekurtsoaren ebazpenaren aurka:

a) Berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke.
b) Ezohiko berrikuspen-errekurtsoa aurkez daiteke kasu guztietan.
c) Ez da beste administrazio-errekurtsorik aurkez daiteke.
d) Beti aurkez daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa eta berraztertzekoa.

84. 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, Administrazio Publikoek beren egintza kaltegarriak baliogabetu ditzakete:

a) Edozein unetan, baldin eta legeek onartzen ez duten dispentsa edo salbuespena badakar.
b) Edozein unetan, baldin eta legeek onartzen ez duten dispentsa edo salbuespena ez badakar eta berdintasunaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa ez bada.
c) Egintza eman zenetik lau urteko epean bakarrik.
d) Interesdunak berariaz eskatzen duenean soilik.

85. 39/2015 Legearen arabera, administrazio-bidean irmoak diren egintzen aurka ezohiko berrikuspen-errekurtsoa aurkez daiteke:

a) Ebazpena zuzenbidearen aurkakoa dela uste denean interpretazio juridikoaren errorearengatik.
b) Ebazpenean akatsa dagoela frogatzen duten balio handiko dokumentuak agertzen direnean.
c) Interesdunak aurretik gora jotzeko errekurtsorik aurkeztu ez duenean.
d) Administrazio-bidea amaitzen duten egintzen kasuan soilik.

86. 39/2015 Legearen arabera, ezohiko berrikuspen-errekurtsoa aurkezteko epea, balio handiko dokumentuak agertzen direnean:

a) Egintza eman zenetik urtebetekoa.
b) Ebazpena jakinarazi zenetik lau urtekoa.
c) Dokumentuak ezagutzen direnetik hiru hilabetekoa.
d) Epai judiziala irmo bihurtzen denetik hiru hilabetekoa.

87. 39/2015 Legearen arabera, izapide-egintzen aurka, baldin eta prozeduraren funtsa zuzenean edo zeharka erabakitzen badute edo defentsa-eza eragiten badute:

a) Ezohiko berrikuspen-errekurtsoa soilik aurkez daiteke.
b) Gora jotzeko edo berraztertzeko errekurtsoak aurkez daitezke.
c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bakarrik aurkez daiteke.
d) Berraztertzeko errekurtsoa soilik aurkez daiteke.

88. 39/2015 Legearen arabera, gora jotzeko errekurtsoa ustezko egintza baten aurka aurkezten bada:

a) Hilabeteko epean aurkeztu behar da.
b) Edozein unetan aurkeztu daiteke, isiltasun administratiboaren ondorioak gertatzen direnetik aurrera.
c) Hiru hilabeteko epean aurkeztu behar da.
d) Ezingo da aurkeztu.

89. 39/2015 Legearen arabera, berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko epea, egintza espresua bada:

a) 10 egun.
b) 15 egun.
c) Hilabete bat.
d) Hiru hilabete.

90. 39/2015 Legearen arabera, berraztertzeko errekurtsoaren ebazpenaren aurka:

a) Gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke.
b) Ezingo da berriro errekurtsorik aurkeztu.
c) Beste berraztertzeko errekurtso bat aurkez daiteke.
d) Beti aurkez daiteke ezohiko berrikuspen-errekurtsoa.

91. 39/2015 Legearen arabera:

a) Ofizioz, eta dagokion organo aholku-emailearen aldeko irizpenarekin, administrazio-xedapenen deuseztasuna deklaratu ahal izango da.
b) Interesdunak eskatuta soilik deklaratu ahal izango da.
c) Ofizioz edo interesdunak eskatuta deklaratu ahal izango da.
d) Deuseztagarritasuna soilik deklaratu ahal izango da.

92. Erregelamendu-ahala baliatzean, Administrazio Publikoek honako printzipio hauen arabera jardungo dute:

a) Hierarkia, deszentralizazioa eta koordinazioa.
b) Premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.
c) Legezkotasuna, erantzukizuna eta kontrol jurisdikzionala.
d) Eraginkortasuna eta efizientzia baino ez.

93. Erregelamenduek ondorio juridikoak noiztik aurrera sortuko dituzte:

a) Organo eskudunak onartzen dituenetik aurrera.
b) Dagokion saileko titularrak sinatzen dituenetik aurrera.
c) Dagokion aldizkari ofizialean argitaratzen direnetik aurrera.
d) Interesdunei jakinarazten zaienetik aurrera.

94. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoaren arabera, erregelamendu-ahala baliatzea honako hauei dagokie:

a) Behe-mailako administrazio-organoei, baldin eta haien goi-mailako hierarkikoak hala erabakitzen badu.
b) Tokiko, autonomia-erkidegoetako eta estatuko gobernu-organoei, Konstituzioan, autonomia-estatutuetan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera.
c) Ministroen Kontseiluari bakarrik.
d) Kudeaketa-eskumena esleituta duen edozein administrazio-organori.

95. 39/2015 Legearen arabera, arau bat prestatu aurreko kontsulta publikoaren izapidean, besteak beste, honako alderdi hauei buruzko iritzia jaso beharko da:

a) Etorkizuneko erregulazioak ukitutako elkargo profesionalen iritzia bakarrik.
b) Arauak ukitutako lurralde-administrazioen oharrak bakarrik.
c) Potentzialki ukituta gera daitezkeen subjektuen eta erakunderik adierazgarrienen iritzia, konpondu nahi diren arazoei, araua onesteko premiari eta egokitasunari, haren helburuei eta ordezko irtenbide erregulatzaile zein ez-erregulatzaileei buruz.
d) Organo aholku-emaile eskudunaren balorazio teknikoa eta etorkizuneko arauaren testu artikulatu osoa.

96. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoaren arabera, premia- eta eraginkortasun-printzipioei jarraituz, arau-ekimenak honako baldintza hauek bete behar ditu:

a) Aukera politikoaren arrazoiek baino ez justifikatzea.
b) Interes orokorreko arrazoi batek justifikatuta egotea, lortu nahi diren helburuen identifikazio argian oinarritzea eta helburu horiek bermatzeko tresnarik egokiena izatea.
c) Europar Batasuneko araudia hitzez hitz erreproduzitzera mugatzea.
d) Beti memoria ekonomiko lotesle batekin batera aurkeztea.

97. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoaren arabera, proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, proposatzen den arau-ekimenak honako hau egin beharko du:

a) Ahal den erregulaziorik zabalena jasotzea, arau-hutsuneak prebenitzeko.
b) Arauaren bidez estali beharreko premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa baino ez jasotzea, aurrez egiaztatu ondoren ez dagoela eskubideak gutxiago murrizten dituen edo hartzaileei betebehar gutxiago ezartzen dizkien beste neurririk.
c) Hartzaile guztiei betebehar homogeneoak ezartzea beti, gaiaren izaera alde batera utzita.
d) Salbuespenik gabe lege oro erregelamendu bidez garatzera mugatzea.

98. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoaren arabera, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, arau-ekimenak:

a) Gainerako ordenamendu juridikoarekin, estatukoa zein Europar Batasunekoa, modu koherentean baliatu beharko da, arau-esparru egonkorra, aurreikusgarria, integratua, argia eta ziurtasuna emango duena sortzeko.

b) Aurretiazko ordenamendutik aldendu ahal izango da, organo proposatzaileak hala justifikatzen badu.
c) Funtsezko osagaiak osatzeko, beti erregelamendura jo beharko du.
d) Justifikaziotik salbuetsita geratuko da, antolaketa-gaiak xede baditu.

99. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoaren arabera, lege baten erregelamendu-garapenerako gaikuntzak, oro har, honako hauei emango zaizkie:

a) Gaiaren gaineko kudeaketa-eskumena duen edozein administrazio-organori.
b) Dagokion Gobernuari edo Gobernu Kontseiluari.
c) Ministerio-sailetako edo sailburutzetako titularrei, justifikaziorik behar izan gabe.
d) Gaiaren arabera eskudunak diren zuzendaritza nagusiei.

100. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoaren arabera, efizientzia-printzipioa aplikatuz, arau-ekimenak honako hau egin behar du:

a) Administrazio-izapideak areagotzea, aurretiazko kontrola indartzeko.
b) Beharrezkoak ez diren edo osagarriak diren administrazio-kargak saihestea eta, aplikazioan, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzea.
c) Administrazio-jarduketa oro aurretiazko baimenaren mende jartzea.
d) Aurrekontu-aurrezkia bakarrik bermatzea, nahiz eta hartzaileentzat karga formalak handitu.

101. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoaren arabera, arau-ekimenak egungo edo etorkizuneko gastu edo diru-sarrera publikoetan eragina badu:

a) Nahikoa izango da haren inpaktuaren zenbatespen orokor bat egitea.
b) Haren ondorio eta eraginak kuantifikatu eta baloratu beharko dira, eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak betetzearen mende geratu beharko da.
c) Memoria ekonomikoa baino ez da beharrezkoa izango, baldin eta sektoreko lege batek hala eskatzen badu.
d) Balorazio ekonomiko orotatik salbuetsita geratuko da, erregelamendu bat bada.

102. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoaren arabera, Administrazio Publikoek:

a) Aldian-aldian berrikusiko dute indarreko araudia, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko eta aurreikusitako helburuen betetze-maila egiaztatzeko.
b) Organo aholku-emaile eskudunak hala eskatzen duenean baino ez dute berrikusiko beren araudia.
c) Lege-mailako arauak baino ez dituzte ebaluatuko, baina ez erregelamenduak.
d) Indarreko araudiaren edozein ebaluazio alde batera utzi ahal izango dute, urteko Araugintza Plana badago.

103. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoaren arabera, urtero Administrazio Publikoek argitara emango dute honako hau jasoko duen Araugintza Plana:

a) Urte horretan onartu behar diren erregelamendu-ekimenak baino ez.
b) Hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak.
c) Administrazio-antolaketako barne-xedapen guztiak, arau-maila izan ala ez.
d) Legebiltzarreko izapidetzea hasita duten lege-aurreproiektuak baino ez.

104. Honako eskumen hauetako zein EZIN da eskuordetzearen xede izan?

a) Xedapen orokorrak ematea.
b) Kudeaketa-egintzak emateko eskumena.
c) Administrazio-prozeduren instrukzioa.
d) Izapide-egintzak formalizatzea.

105. 40/2015 Legearen arabera, adierazi hitzarmen baten gutxieneko edukiaren parte EZ den elementua:

a) Sinatzaile diren alderdien identifikazioa eta jarduteko duten eskumena.
b) Hitzarmenaren xedea eta alderdiek gauzatu beharreko jarduketak.
c) Hitzarmena aldatzeko araubidea.
d) Ez-betetzea gertatuz gero alderdiei aplikatu beharreko zehapen-araubidea.

106. 40/2015 Legearen arabera, kide anitzeko organoek urrutiko bilkurak egin ahal izango dituzte, baldin eta:

a) Lehendakaria eta idazkaria fisikoki leku berean badaude.
b) Kideen nortasuna, haien adierazpenen edukia eta denbora errealeko elkarreragina bermatzen badira.
c) Deialdi bakoitzean berariaz baimentzen baditu hierarkian goragoko organoak.
d) Bilkurak posta elektroniko bidez soilik egiten badira.

107. Sinadura-eskuordetzeari buruz, adierazi aukera zuzena:

a) Sinadura-eskuordetzeak organo eskuordetzailearen eskumena aldatzen du.
b) Sinadura-eskuordetzeak baliozkoa izateko aldizkari ofizialean argitaratzea eskatzen du.
c) Sinadura-eskuordetzeak erregelamendu-ahalmena eskuordetzea ahalbidetzen du.
d) Sinadura-eskuordetzeak ez du organo eskuordetzailearen eskumena aldatzen eta ez du argitalpenik behar baliozkoa izateko.

108. 40/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoaren, arabera, goi-organoek beren gain hartu ahal izango dute, abokazio bidez, beren menpeko administrazio-organoei ohikotasunez edo eskuordetzaz dagokien gai baten edo batzuen ezagutza, honako kasu honetan:

a) Izaera teknikoko, ekonomikoko, sozialeko, juridikoko edo lurralde-izaerako inguruabarrek komenigarri egiten dutenean.
b) Prozeduran pertsonatuta dagoen edozein interesdunek eskatzen duenean.
c) Eskuordetutako eskumenak kide anitzeko organo bati dagozkionean.

d) Izapide-egintzaren aurka administrazio-errekurtsoa jarri denean.

109. 40/2015 Legearen arabera, hutsunea, absentzia edo gaixotasuna dagoenean, bai eta administrazio-organo baten titularraren abstentzioa edo errekusazioa deklaratu denean ere:

a) Eskumena automatikoki etenda geratuko da titular berri bat izendatu arte.
b) Eskumena nahitaez igaroko da goragoko kide anitzeko organora.
c) Ordezkapena dagokion aldizkari ofizialean argitaratuz soilik erabaki ahal izango da.
a) Diziplina-ahala interesdunak hasieran izendapena lortu zuen osasun-zerbitzuari dagokio, falta egin zen unean zerbitzuak ematen ari zen osasun-zerbitzua edozein dela ere. Hala badagokio, ezartzen diren zehapenek balioa eta eraginkortasuna izango dute osasun-zerbitzu guztietan.
b) Diziplina-ahala interesduna falta egiten den unean zerbitzuak ematen ari den osasun-zerbitzuari dagokio, alde batera utzita hasieran izendapena zer osasun-zerbitzutan lortu zuen. Hala badagokio, ezartzen diren zehapenek balioa eta eraginkortasuna izango dute osasun-zerbitzu guztietan.
c) Diziplina-ahala interesdunak hasieran izendapena lortu zuen osasun-zerbitzuari dagokio, falta egin zen unean zerbitzuak ematen ari zen osasun-zerbitzua edozein dela ere. Hala badagokio, ezartzen diren zehapenek diziplina-ahala baliatzen duen osasun-zerbitzuan bakarrik izango dute balioa eta eraginkortasuna.
d) Diziplina-ahala interesduna falta egiten den unean zerbitzuak ematen ari den osasun-zerbitzuari dagokio, alde batera utzita hasiera batean izendapena zer osasun-zerbitzutan lortu zuen. Hala badagokio, ezartzen diren zehapenek hutsegitearen unean lanean ari den osasun-zerbitzuan izango dute balioa eta eraginkortasuna.

210.- Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, hutsegite oso larriak dira:
a) Ordutegi-kontroleko sistemak saihesteko edo lanaldia justifikatu gabe betetzen ez denean hori ez detektatzeko ekintzak edo omisioak.
b) Lanaldia ez betetzea, justifikaziorik gabe, hilean 20 ordu baino gehiago metatuta.
c) Instalazioetan, ekipamenduan, tresnetan edo dokumentazioan izandako kalteak edo narriadurak, zabarkeria barkaezinagatik gertatzen direnean.
d) Bost egun jarraian baino gehiagotan lanera ez joatea edo bi hilabetean zazpi falta metatzea, baimenik edo arrazoi justifikaturik gabe.



211. Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, jokabide hauetatik zein da falta arina?
a) Edozein pertsonari eraso larria egitea bere eginkizunak betetzean.
b) Zerbitzua bertan behera uztea.
c) Zuzen ez jokatzea nagusiekin, lankideekin, mendekoekin edo erabiltzaileekin.
d) Nagusi baten aginduak nabarmen eta agerikoa ez betetzea.

212. Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, zein da falta arinen preskripzio-epea?
a) Lau urte.
b) Bi urte.
c) Urtebete.
d) Sei hilabete.

213. Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, zer irizpide hartuko dira kontuan ezarritako graduazioaren barruan zehapen zehatza zehazteko?
a) Langilearen antzinatasuna eta lanbide-kategoria.
b) Intentzionalitate-maila, interes publikoari egindako kaltea eta errepikapena edo berrerortzea.
c) Langilearen adina eta eragindako lankideen kopurua.
d) Lan-txanda eta lanaldiaren iraupena.

214. Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, noiz baliogabetuko dira ofizioz hutsegite larriengatiko zehapenei dagozkien idazpenak espediente pertsonalean?
a) Zehapena bete eta sei hilabetera.
b) Urtebetera, zehapena ezartzen denetik aurrera.
c) Zehapena bete eta bi urtera.
d) Zehapena ezarri eta lau urtera.

215. Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, zer printzipiori jarraitu behar dio osasun-zerbitzuetako diziplina-prozedurak?
a) Publizitatea, berdintasuna eta hierarkia.
b) Azkartasuna, berehalakotasuna eta ekonomia prozesala.
c) Eraginkortasuna, gardentasuna eta deszentralizazioa.
d) Legezkotasuna, publizitatea eta lehia.

216. Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, hauetako zein da interesdunaren eskubidea diziplina-prozeduran?
a) Prozeduraren instrukzio-egilea askatasunez aukeratzea.
b) Prozedura automatikoki eteteko eskatzea.
c) Egitateak zehazteko froga egokiak proposatzea.
d) Diziplina-prozedura zuzenean ebaztea.

217. Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, kautelazko zer neurri har daiteke falta larri edo oso larriengatiko diziplina-espediente bat izapidetzen den bitartean?
a) Zerbitzutik behin betiko kentzea.
b) Eginkizunak behin-behinean etetea, ebazpen arrazoitu bidez.

c) Lanaldia nahitaez murriztea.
d) Beste osasun-zentro batera nahitaez lekualdatzea.

218. Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, behin-behineko etendura diziplina-espediente baten ondorioz gertatzen denean, zein da haren gehieneko iraupena, oro har?
a) Hiru hilabete luzaezin.
b) Sei hilabete, prozedura interesdunari egotz dakiokeen kasuetan izan ezik.
c) Urtebete, prozedura interesdunari egotzi ahal zaionean izan ezik.
d) Behin betiko ebazpena eman arte, denbora-mugarik gabe.

219. Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen arabera, noiz deklaratuko da behin-behineko etendura ordainsariak jasotzeko eskubiderik gabe?
a) Prozedura judizial baten ondorioz behin-behineko espetxealdia edo agintaritza judizialak agindutako beste neurri batzuk direla-eta, eginkizunak bost egunez baino gehiagoz jarraian betetzea ezinezkoa denean.
b) Ukitutako pertsonak bere borondatez eskatzen duenean etetea.
c) Prozedura judizial bat dela-eta, behin-behineko espetxealdia edo agintaritza judizialak agindutako beste neurri batzuk direla-eta, eginkizunak hamar egunez baino gehiagoz jarraian betetzea ezinezkoa denean.
d) Autonomia-erkidegotik kanpoko zerbitzu-eginkizun bat adosten denean

220. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zein da estatutu honek islatzen duen jarduketa-oinarrietako bat?
a) Izendapen askea, enplegu publikora iristeko sistema orokor gisa.
b) Berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna lanbide-sarbidean eta -sustapenean.
c) Interes pribatuak lehenestea interes orokorren gainetik.
d) Funtzio publikoak betetzean hierarkiarik ez egotea.

221. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera , erakunde hauetako zeini aplikatzen zaio Estatutu hau?
a) Estatuko Administrazio Orokorrari bakarrik.
b) Unibertsitate publiko eta pribatuei.
c) Unibertsitate publikoei.
d) Administrazioarekin lankidetzan diharduten erakunde pribatuei bakarrik.

222. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zer arau bete behar dute toki-erakundeetako funtzionarioek?
a) Autonomia-erkidegoetako legeak, funtzionarioek erkidego baten eremua gainditzen ez dutenean.
b) Estatuko legeria aplikagarria, Estatutu hau bezalako oinarrizko legeria barne, eta legeria autonomikoa, tokiko autonomia errespetatuz.
c) Toki-erakunde bakoitzaren barne-araudia, funtzionarioak udal-eremukoak direnean.
d) Funtzio publikoari buruzko Europako legeria bakarrik.

223. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, kolektibo hauetako zeinek du berariazko legeria propioa, eta legeria horrek hala xedatzen duenean soilik aplikatuko zaio zuzenean Estatutua?
a) Toki-erakundeetako lan-kontratuko langileak eta Gorte Nagusietako funtzionarioak.
b) Gorte Nagusietako eta autonomia-erkidegoetako legebiltzarretako funtzionarioak.
c) Udaletako administrazio-langileak.
d) Unibertsitate publikoetako lan-kontratuko langileak.

224. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, nor dira karrerako funtzionarioak?

a) Ordainsaririk gabe funtzio publikoak betetzen dituztenak, bai eta, legezko izendapenaren bidez, administrazio publiko bati lotuta daudenak ere, administrazio-zuzenbideak zerbitzu profesional ordainduetarako araututako estatutu-harreman iraunkor baten bidez.
b) Legezko izendapenaren bidez herri-administrazio bati lotuta daudenak, administrazio-zuzenbideak araututako estatutu-harreman baten bidez, zerbitzu profesional ordaindu iraunkorretarako.
c) Titularrak ordezkatzeko aldi baterako kontratua dutenak, betiere titular horiek funtzionario publikoak badira.
d) Aholkularitza politikoko behin-behineko eginkizunak betetzen dituztenak, bai eta legez izendatuta dauden pertsona bat ere, administrazio publiko bati lotuta daude, Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu-harreman baten bidez.

225. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zein da bitarteko funtzionarioak izendatzea ahalbidetzen duen inguruabarretako bat?
a) Lanpostuak etengabe betetzea.
b) Karrerako funtzionarioek bete ezin dituzten plaza hutsak egotea.
c) Karrerako funtzionarioen barne-sustapena.
d) Konfiantzazko eginkizun politikoak betetzea.

226.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, funtzionario publikoen lan-baldintzen negoziazio kolektiborako, negoziazio-mahaiak eratuko dira, eta bertan egoteko legitimatuta egongo dira:
a) Alde batetik, dagokion herri-administrazioaren ordezkariak, eta, bestetik, estatuan ordezkaritzarik handiena duten sindikatuak, bai eta langileen ordezkari eta batzordeetarako hauteskundeetan ordezkarien 100eko 20 edo gehiago lortu duten sindikatuak ere, bakoitzaren eraketa-eremuko hauteskunde-unitateetan. Autonomia-erkidegoan ordezkaritzarik handiena duten sindikatuek ez dute bertan egoteko legitimaziorik izango.
b) Alde batetik, dagokion herri-administrazioaren ordezkariak, eta, bestetik, autonomia-erkidegoan ordezkaritzarik handiena duten sindikatuak, bai eta langileen ordezkari eta batzordeetarako hauteskundeetan ordezkarien ehuneko 20 edo gehiago lortu duten sindikatuak ere, bakoitzaren eraketa-eremuko hauteskunde-unitateetan. Estatuan ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalak ez dira bertan egoteko legitimatuta egongo.
c) Alde batetik, dagokion herri-administrazioaren ordezkariak, eta, bestetik, estatuan

ordezkaritzarik handiena duten sindikatuak, bai eta langileen ordezkari eta batzordeetarako hauteskundeetan ordezkarien 100eko 10 edo gehiago lortu duten sindikatuak ere, bakoitzaren eraketa-eremuko hauteskunde-unitateetan.
d) Alde batetik, dagokion herri-administrazioaren ordezkariak, eta, bestetik, estatuan ordezkaritzarik handiena duten sindikatuak, autonomia-erkidegoan ordezkaritzarik handiena duten sindikatuak, eta langileen ordezkari eta batzordeetarako hauteskundeetan ehuneko 10 edo gehiago lortu duten sindikatuak, bakoitzaren eraketa-eremuan dauden hauteskunde-unitateetan.

227. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zer organo eratzen da funtzionario publikoen negoziazio kolektiboaren ondorioetarako Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia-erkidegoetan, Ceuta eta Melilla hirietan eta toki-erakundeetan?
a) Funtzio Publikoaren Batzorde Orokorra.
b) Negoziazio Mahai Orokorra.
c) Funtzio Publikoaren Kontseilu Gorena.
d) Langileen Batzordea.

228. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zer printzipiotan negoziatu behar dute alderdiek negoziazio kolektiboko prozesuan negoziazio-mahaietan?
a) Administrazio-hierarkiaren printzipioaren pean.
b) Nahitaezko publizitatearen printzipioaren pean.
c) Fede onaren printzipioaren pean.
d) Lehia askearen printzipioaren arabera.

229.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, honako hauek negoziatuko dira, nork bere eremuan eta administrazio publiko bakoitzaren eskumenei dagokienez, eta kasu bakoitzean legez dagokion irismenarekin:

a) Zuzendaritzako langileen lan-baldintzak zehaztea.
b) Enplegu publikora iristeko eta lanbide-sustapenerako sistemak, irizpideak, organoak eta prozedurak arautzea eta zehaztea, kasu bakoitzean.
c) Herritarrek eta zerbitzu publikoen erabiltzaileek dituzten eskubideen erabilera arautzea, bai eta administrazioaren egintzak eta xedapenak eratzeko prozedura arautzea ere.
d) Sarbideari, karrerari, lanpostuak betetzeari, lanpostuak sailkatzeko sistemei eta giza baliabideak planifikatzeko plan eta tresnei buruzko irizpide orokorrak finkatzen dituzten arauak.

230. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zer eginkizun dute langileen batzordeek eta langileen ordezkariek diziplina-zehapenei dagokienez?
a) Funtzionarioei zehapenak ezartzea hutsegite larriengatik.
b) Falta oso larriengatik ezarritako zehapen guztien berri izatea.
c) Zehatutako funtzionarioen eginkizun-etendurari buruz erabakitzea.
d) Administrazioak ezarritako zehapenak judizialki berrikustea.

231. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zer berme dute Langileen Batzordeetako kideek eta Langileen Ordezkariek lekualdatzeari edo zehapenari dagokionez?
a) Ezin izango dira lekuz aldatu, ezta zehatu ere, agintaldian zehar edo agintaldia amaitu eta hurrengo urtean, ordezkaritza-agintaldia egikaritzearekin lotutako arrazoiengatik, salbu eta errebokazioagatik edo dimisioagatik, edo zerbitzuaren premiengatik.
b) Ezin izango dira lekuz aldatu, ezta zehatu ere, ordezkaritza-agintaldian zehar, ezta agintaldia amaitu eta hurrengo urtean ere, errebokazioagatik edo dimisioagatik izan ezik.
c) Ezin izango dira lekuz aldatu, ezta zehatu ere, ordezkaritza-agintaldian zehar, ezta agintaldia amaitu eta hurrengo bi urteetan ere, errebokazioagatik edo dimisioagatik izan ezik.
d) Ezin izango dira lekuz aldatu, ez eta ezein arrazoirengatik zehatu, ez agintaldian zehar, ez azkendu eta hurrengo urtean, errebokazioagatik edo dimisioagatik izan ezik.

232. Osakidetzako lanpostu funtzionalei buruzko 186/2005 Dekretuaren arabera, zeren baitan dago lanpostu funtzional batera iristea?:
a) Eskatutako titulazio akademikoan baino ez.
b) Erakundean duen antzinatasunean, antzeko eginkizunak egin badira.
c) Lanpostuaren definizioan (lanbide taldea, titulazioa eta eginkizunak).
d) Zuzendaritzaren erabakian baino ez.

233.- 186/2005 Dekretuaren arabera, zein da langileen antolaketa, sustapena eta garapen osoa helburu duen langileak sailkatzeko tresna?:
a) Lanbide-taldea.
b) Kategoria.
c) Lanpostu funtzionala.
d) Titulazio-taldea.

234.- Lanpostu funtzionaletako ordainsariei dagokienez, esan zein den erantzun <u>okerra</u>:
a) Lanpostu funtzionalen ordainsari-egitura oinarrizko ordainsariek eta ordainsari osagarriek osatzen dute.
b) Lanpostu funtzionalen ordainsarien zenbatekoak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak ezartzen ditu, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren.
c) Lanpostu funtzional batera iristeak lanpostu horri dagozkion ordainsariak jasotzea dakar.
d) Lanpostu funtzionalak, besteak beste, esleitutako ordainsari-ondorioekin identifikatuko dira.

235.- 4. artikuluaren arabera, zein elementu ez da "erantzukizun funtzionala" bereizteko irizpideetako bat?:
a) Taldeak antolatzeko erantzukizun hierarkikoa.
b) Ezagupen espezializatu tekniko edo praktikoak.
c) Baliabide materialak kudeatzeko ardura.
d) Lanpostuari esleitutako euskara-maila.

236.- Plantilla funtzionala aldatzeak antolakundeko egiturazko plantilla aldatzea badakar:
a) Eusko Legebiltzarrak zuzenean onartu behar du.
b) Zuzendari gerenteak bakarrik onar dezake.
c) Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren onarpena behar du.
d) Automatikoki aplikatzen da negoziazio kolektiboaren ondoren.



237.- Hizkuntza-eskakizunari dagokionez, lanpostu funtzionaletan hasierako zehaztapenerako irizpideak arautzen dituen araudia hau da:
a) 67/2003 Dekretua.
b) 255/1997 Dekretua.
c) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea.
d) Osasun Antolamenduko 8/1997 Legea.

238.- Zer ordainsari-ondorio ditu lanpostu bat ofizioz egokitua duen eta ordainsari finkoak murriztuta dituen titular batek?
a) Urteko ordainsari baten baliokidea den konpentsazio-ordainketa bakar bat.
b) Osagarri pertsonal eta iragankor bat esleitzea.
c) Lansarien arteko aldea behin betiko galtzea.
d) Hurrengo deialdian lehiaketan parte hartzeko betebeharra.

239.- Seigarren xedapen gehigarriaren arabera, lanpostu funtzional baterako gaitzen duten titulazio berriak sar ditzake, kategoria berririk sortu gabe:
a) Eusko Legebiltzarrak, legegintzako bidetik.
b) Hezkuntza Ministerioak.
c) Osakidetzako Administrazio Kontseiluak.
d) Giza Baliabideen Zuzendaritzak.

240.- 186/2005 Dekretuaren arabera, "talde profesionala" honela definitzen da:
a) Ikasketa-mailan bakarrik oinarritutako sailkapena.
b) Sektorean aritutako urteetan oinarritutako banaketa.
c) Destino geografiko bera duten langileak.
d) Gaitasun profesionalak eta zereginen eduki espezifikoa multzo bakar batean biltzea.

241.- 186/2025 Dekretuaren arabera, zein da zerbitzu-erakunde bakoitzeko plantilla funtzionala onartzeko eskumena duen organoa?
a) Zerbitzu Erakundeko bertako zuzendari gerentea.
b) Osasun sailburua.
c) Osakidetzako Administrazio Kontseilua.
d) Gobernu Kontseilua.

242.- Zein da 186/2005 Dekretuaren helburu nagusia, 1. artikuluaren arabera?
a) Lanpostu funtzionalak zehaztea, Osakidetzako egiturazko plantilla antolatzeko.
b) Osasun-sistema berri bat sortzea, Antolamendu Sanitarioaren Legetik independentea dena.
c) Osasun-arloko eskumenak toki-administrazioei eskualdatzea.
d) Osasun-langileen oporrak eta ordutegiak arautzea soilik.

243.- Zein bereizketa-irizpide aplikatzen da lanpostu batek giza ekipoak antolatu eta ikuskatzeko funtzioak hartzea eskatzen duenean?
a) Okupazioa, titulazioaren arabera.
b) Erantzukizun hierarkikoa.
c) Kudeaketa-erantzukizuna.
d) Ezagutza espezializatuak.



244.- Lehiaketa bidez lortutako lanpostu bat kenduz gero, zein eskubide du eragindako langile finkoak?

a) Lehentasunezko eskubidea, hurrengo lehiaketan, udalerri berean kategoria bereko lanpostu hutsak betetzeko.
b) Lan egindako urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina.
c) Erkidegoko edozein probintziatan edozein plaza aukeratzeko eskubidea.
d) Oinarriaren % 100arekin nahitaezko erretiro aurreratua hartzeko eskubidea.

245.- Noiz eragiten dituzte ondorio juridiko eta ekonomikoak plantilla funtzionala onartzeko ebazpenek?

a) Gobernu Kontseiluak deliberatu eta berehala.
b) Atzeraeraginez, urte bereko urtarrilaren 1etik aurrera.
c) Zuzendari gerenteak sinatu eta hiru hilabetera.
d) Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, epe desberdinak ezartzen direnean izan ezik.

246. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zein modalitatetan konfiguratzen da Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-ekintza?

a) Publikoa eta pribatua.
b) Nahitaezkoa eta borondatezkoa.
c) Kontributiboa eta ez-kontributiboa.
d) Estatukoa eta autonomia-erkidegokoa.

247. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zein printzipiotan oinarritzen da Gizarte Segurantzaren sistema?

a) Unibertsaltasuna, batasuna, elkartasuna eta berdintasuna.
b) Hierarkia, deszentralizazioa eta eraginkortasuna.
c) Legezkotasuna, erantzukizuna eta publizitatea.
d) Ekitatea, autonomia eta lankidetza.

248. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, langileak legeak berak ematen dizkion eskubideei UKO EGITEKO itun oro, banakakoa zein kolektiboa izan:

a) Deuseztagarria izango da.
b) Zuzenbidearen araberakoa izango da, ukoa berariaz egiten bada.
c) Zuzenbidearen araberakoa izango da, baldin eta uko egitea eskritura publikoan egiten bada.
d) Deuseza izango da.

249. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, nori dagokio Gizarte Segurantzaren antolamendua, jurisdikzioa eta ikuskaritza?

a) Autonomia-erkidegoei.
b) Estatuari.
c) Sindikatuak.
d) Entitate kudeatzaileei.

250. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, nork lagunduko du Gizarte Segurantzaren kudeaketan, legean aurreikusitako baldintzetan?
a) Sindikatuek bakarrik.
b) Langileak eta enpresaburuak.
c) Erakunde kudeatzaileek bakarrik.
d) Administrazio publikoek bakarrik.

251. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, Gizarte Segurantzaren antolamendua merkataritza-irabazizko eragiketetarako oinarri izan daiteke?
a) Bai, Gobernuak baimentzen badu.
b) Bai, erakunde pribatuek esku hartzen dutenean.
c) Legeak aurreikusitako kasu jakin batzuetan bakarrik.
d) Ez, inoiz ere ez.

252. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zein ministeriok betetzen ditu Gizarte Segurantzaren arloko Estatuaren funtzio ez-jurisdikzionalak, Gobernuari ez dagozkionak?
a) Ogasun Ministerioa.
b) Lehendakaritzan zentralizatuta daude.
c) Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.
d) Ekonomia Ministerioa.

253. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, nori dagokio Gizarte Segurantzaren sistemako organismoen ekintza antzeko beste zerbitzu batzuekin koordinatzeko behar diren xedapenak ematea?
a) Diputatuen Kongresuak.
b) Gobernuari.
c) Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioari.
d) Autonomia-erkidegoei.

254. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, nortzuk egongo dira sartuta Gizarte Segurantzaren sisteman prestazio kontributiboen ondorioetarako?
a) Espainian bizi diren besteren konturako langileak bakarrik, baldin eta beren jarduera lurralde nazionalean egiten badute eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
b) Espainian bizi diren espainiarrek eta Espainian legez bizi diren edo dauden atzerritarrek, baldin eta lurralde nazionalean jarduten badute eta ezarritako betekizunak betetzen badituzte.
c) Europar Batasuneko herritarrek, baldin eta Europako lurraldean badihardute eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
d) Espainian bizi diren funtzionario publikoek eta langile autonomoek bakarrik.

255. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren arabera (2015), enplegu-zentro berezietan enplegatuta dauden eta desgaitasuna duten langileak Gizarte Segurantzako zein araubidetan sartuko dira?
a) Norberaren konturako langile gisa, dagokion araubide berezian.
b) Besteren konturako langile gisa, bere jarduerari dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean.



c) Araubide berezi esklusiboa desgaitasuna duten pertsonentzat.
d) Araubide Orokorrean bakarrik.

256. Euskadiko Osasun Sisteman herritarren parte-hartzea, beste tresna batzuen artean, honako hauen bidez egituratzen da:

a) Osasun Kontseiluak.
b) Osakidetzako Administrazio Kontseilua.
c) Kontratazio Mahaiak.
d) Zerbitzu-erakundeen zuzendaritzak.

257. 8/1997 Legearen arabera, Euskadiko Osasun Sistemaren zuzendaritza, plangintza eta programazioa honi dagokio:

a) Eusko Legebiltzarrari, gehiengo osoz onartutako lege formal baten bidez.
b) Foru aldundiei, bakoitzaren lurralde historikoaren eremuan.
c) Eusko Jaurlaritzari, osasun-arloan eskumena duen sailaren bidez.
d) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari.

258. 8/1997 Legearen arabera, Euskadiko Osasun Planak:

a) Izaera orientagarri hutsa du.
b) Osasun-sistemaren gidalerroak eta helburuak ezartzen ditu.
c) Zerbitzu-erakunde bakoitzak onartzen du.
d) Erregelamendu-izaera du.

259. 8/1997 Legearen arabera, osasun-zerbitzuak emateko egitura publikoak honela eratzen dira:

a) Autonomia funtzionalik gabeko administrazio-organo gisa.
b) Kudeaketa-autonomia duten erakunde deszentralizatu gisa, osasun-plangintzaren esparruan.
c) Kapital osoa publikokoa duten merkataritza-sozietate gisa.
d) Eusko Legebiltzarraren mende zuzenean dauden organo gisa.

260. 8/1997 Legearen arabera, osasun-zerbitzuak emateko egitura publikoen antolamendua honako honetara bideratu behar da:

a) Kudeaketaren erabateko zentralizaziora.
b) Zerbitzuen zatiketa funtzionalera.
c) Euskadiko Osasun Sistemaren barruan integrazio funtzionalera eta asistentzia-jarraitura.
d) Erakundeak foru aldundien mende hierarkikoan jartzera.

261. 8/1997 Legearen arabera, Osakidetzako zerbitzu-erakundeak:

a) Kudeaketa-autonomiarik gabeko administrazio-unitateak dira.
b) Osasun-zerbitzuak emateko kudeaketa deszentralizatuko egitura gisa eratzen dira.
c) Merkataritza-sozietate publikoen izaera dute.
d) Ez dute erantzukizunik esleitutako baliabideen kudeaketan.

262. 1997ko ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/1997 Legearen arabera, Euskadiko Osasun Sistema honela eratzen da:

a) Elkarrekiko independenteak diren osasun-zerbitzuen multzo gisa, hainbat Administrazio Publikok kudeatua.
b) Osasuna sustatzera, babestera eta hobetzera bideratutako baliabide, jarduera eta prestazioen sistema integratu gisa.
c) Ospitale-prestazioan soilik oinarritutako sistema gisa.
d) Kontrol publiko zeharkakoa duen kudeaketa pribatuko sistema gisa.

263. Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-plangintzari dagokionez, adierazi baieztapen zuzena:

a) Osasun-plangintzak izaera orientagarri hutsa du, eta ez ditu lotzen zerbitzuak emateko egiturak.
b) Osasun-plangintza Osasun Planaren bidez egituratzen da, eta hark sistemaren gidalerroak eta helburuak ezartzen ditu.
c) Osasun-plangintza foru aldundiei dagokie soilik.
d) Osasun-plangintza osasun-sistemaren aurrekontu-kudeaketara mugatzen da.

264. 1997ko ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/1997 Legearen arabera, Euskadiko osasun-sistemaren zuzendaritza, plangintza eta programazioa:

a) Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eskumena da, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunen bidez gauzatzen da.
b) Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunen bidez gauzatzen da.
c) Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eskumena da, eta sail horretako edozein zuzendaritzatan delegatu ahal izango du.
d) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoaren eskumena da.

265. 1997ko ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/1997 Legearen arabera, Euskadiko Osasun Planaren onarpena:

a) Eusko Jaurlaritzari dagokio, osasun-arloan ardura duen goi-organoak proposatuta, eta Eusko Legebiltzarrera bidali beharko da, komunikazio gisa izapidetze erregelamenduzkoa izan dezan.
b) Osasun-arloan ardura duen goi-organoari dagokio, eta Eusko Legebiltzarrera bidali beharko da, komunikazio gisa izapidetze erregelamenduzkoa izan dezan.
c) Eusko Legebiltzarrari dagokio, lege bidez.
d) Eusko Jaurlaritzari dagokio, lege-dekretu bidez, osasun-arloan ardura duen goi-organoak proposatuta.

266. 1997ko ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/1997 Legearen arabera, programa-kontratuak honako izaera juridiko hau izango du:

a) Kudeaketa-aginduarena.
b) Zerbitzu-emakidako kontratuarena.
c) Izaera bereziko hitzarmenarena.
d) Zerbitzu-kontratuarena.

267. 1997ko ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/1997 Legearen arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren mendeko erakundeek:

a) Administrazio-organoen izaera izango dute, eta halakoei dagokien araubide juridikoari lotu beharko zaizkio, administrazio-ahala baliatzen dutenean beren egintzen eraketa eta kanporatzeari dagokion guztian.
b) Ez dute administrazio-organoen izaera izango; hala ere, administrazio-ahala baliatzen dutenean, halakoen araubide juridikoari lotu beharko zaizkio beren egintzen eraketa eta kanporatzeari dagokion guztian.
c) Ez dute administrazio-organoen izaera izango, baina beren jarduketa guztietan administrazio-zuzenbideari lotu beharko zaizkio.
d) Administrazio-organoen izaera izango dute, baina ez dute administrazio-zuzenbideari lotu beharrik izango administrazio-ahala baliatzen dutenean beren egintzen eraketa eta kanporatzeari dagokion guztian.

268. 1997ko ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/1997 Legearen arabera, lege honek ezartzen duen langileen estatutupeko araubidea honako hauei aplikatuko zaie:

a) Medikuntzako fakultatiboen langileei soilik.
b) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoan zerbitzuak ematen dituen langile guztiei, integrazio-prozesuetatik eratorritako salbuespenak alde batera utzi gabe.
c) Karrerako funtzionarioei bakarrik.
d) Estatutupeko langile finkoei soilik.

269. 8/1997 Legearen arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseilua:

a) Entitate publikoaren gobernu-organoetako bat da, eta besteak beste, hari atxikitako baliabideen plangintza estrategikoa, jardueren zuzendaritza eta kudeaketaren goi-kontrola ditu esleituta.
b) Aholku-funtzioak soilik ditu.
c) Eusko Legebiltzarraren menpe dago hierarkikoki.
d) Ez du eskumenik barne-antolaketaren arloan.

270. 8/1997 Legearen arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoaren xede nagusia da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzu guztiak zuzenean ematea.
b) Osasun-zerbitzu publikoak ematea, hura osatzen duten zerbitzu-erakundeen bidez.
c) Foru aldundien osasun-politika koordinatzea.
d) Euskadiko Osasun Sistemaren plangintza orokorra egitea.

271. 8/1997 Legearen arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoak honako izaera juridikoa du:

a) Administrazio-erakunde autonomoa.
b) Merkataritza-sozietate publikoa.
c) Zuzenbide pribatuko entitate publikoa.
d) Sektore publikoko fundazioa.

272. 8/1997 Legearen arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoa honela arautzen da:

a) Zuzenbide pribatuaren bidez soilik arlo guztietan.
b) 8/1997 Legearen xedapenen bidez eta Gobernuak emandako arau-erregelamenduen bidez.
c) Bere estatutu sozialen bidez soilik.
d) Estatuko oinarrizko legediaren bidez, autonomia-araudia baztertuta.

273. Osakidetzaren araubide juridikoari dagokionez:

a) Osasun sailarekiko harremanetan legean araututako programa-kontratuen bidez jarduten du.
b) Entitatearen kontratazioa kontratazio publikoaren legeriatik kanpo geratzen da.
c) Langileen araubidea hitzarmen kolektiboen bidez soilik arautzen da.
d) Menpeko erakundeak beti administrazio-organoak dira.

274. 8/1997 Legearen arabera, Osakidetzaren menpeko erakundeek:

a) Beti administrazio-organoen izaera izango dute.
b) Ez dute administrazio-organoen izaera izango, baina administrazio-ahala erabiltzen dutenean haien araubideari lotuko zaizkie.
c) Ez dute administrazio-egintzak emateko gaitasunik izango.
d) Zuzenbide pribatuaren bidez bakarrik arautuko dira.

275. Osakidetza entitate publikoa Zuzenbide publikoari lotuko zaio:

a) Aurrekontu-arloan soilik.
b) Administrazio-ahala erabiltzen duenean, ondareari eta erantzukizunari dagokionez.
c) Barne-harremanetan soilik.
d) Langileen arloan bakarrik.

276. 8/1997 Legearen arabera, entitate publikoaren antolaketa zentralak:

a) Administrazio Kontseilua ordezkatzen du.
b) Estatutuetan arautzen da eta Kontseiluari laguntzen dio.
c) Eusko Legebiltzarraren menpe dago.
d) Ez du koordinazio funtziorik.

277. 8/1997 Legearen arabera, Osakidetzako plantillak:

a) Eusko Legebiltzarrak onartzen ditu.
b) Administrazio Kontseiluak onartzen ditu.
c) Zerbitzu-erakunde bakoitzak onartzen ditu.
d) Hitzarmen kolektibo bidez ezartzen dira.

278. 8/1997 Legearen arabera, Osakidetza entitate publikoa:

a) Zuzenbide pribatuari lotzen zaio ondarean eta erantzukizunean.

b) Zuzenbide publikoari lotzen zaio administrazio-ahala erabiltzean eta bere egintzek administrazio-bidea amaitzen dute.
c) Zuzenbide publikoari lotzen zaio baina ez du administrazio-bidea amaitzen.
d) Beti zuzenbide pribatuari lotzen zaio.

279. 255/1997 Dekretuaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoa:

a) Ez du nortasun juridiko propiorik.
b) Nortasun juridiko propioa du, eta jarduteko gaitasun osoa bere xedeak betetzeko.
c) Osasun-arloan eskumena duen sailean integratutako administrazio-organoa da.
d) Merkataritza-sozietate publikoaren izaera du.

280. 255/1997 Dekretuaren arabera, Osakidetzako Administrazio Kontseilua hau da:

a) Organo bakarkakoa, eginkizun betearazleak dituena.
b) Entitate Publikoaren gobernu-organo kolegiatua.
c) Aholku-organoa, erabakitzeko eskumenik gabea.
d) Zerbitzu-erakunde bakoitzaren mendeko organo hierarkikoa.

281. 255/1997 Dekretuaren arabera, Entitate Publikoaren Zuzendaritza Nagusia:

a) Organo kolegiatua da.
b) Entitatearen eguneroko zuzendaritzako eta eginkizun betearazleetako funtzioak betetzen ditu.
c) Ez du berezko eskumenik.
d) Administrazio Kontseilua ordezten du bere eginkizun guztietan.

282. 255/1997 Dekretuaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoaren lehendakaritza honi dagokio:

a) Entitate Publikoko zuzendari nagusiari.
b) Lehendakariari.
c) Osasuneko sailburuari.
d) Osasuneko sailburuordeari.

283. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoaren lehendakaritzaren eginkizunen artean honako hau dago:
a) Entitatearen plantilla organikoak onartzea.
b) Entitate Publikoaren eta haren Administrazio Kontseiluaren ordezkaritza gauzatzea.
c) Langile guztien diziplina-prozedurak ebaztea.
d) Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorrak onartzea.

284. 255/1997 Dekretuaren arabera, Administrazio Kontseiluak:

a) Bere kideen artetik presidenteorde bat izendatuko du.
b) Zuzendari nagusiak presidituko du.
c) Osasun-arloko langileek bakarrik osatuko dute.
d) Ez du idazkaririk izango.

285. 255/1997 Dekretuaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoko zuzendari nagusia honelakotzat hartzen da:

a) Administrazio Kontseiluari laguntzeko aholku-organoa.
b) Kudeaketako goi-zuzendaritzako kargua.
c) Entitate Publikoaren kontu-hartzaile nagusia.

d) Gobernu-organo kolegiatua.

286. 255/1997 Dekretuaren arabera, Entitate Publikoaren zerbitzu-erakundeek, nortasun juridiko propiorik ez badute:

a) Ez dute jarduteko inolako gaitasunik izango.
b) Berariaz esleituta dituzten kudeaketa-ahalmenei dagokien gaitasuna izango dute.
c) Eusko Legebiltzarraren eskuordetzaz bakarrik jardun ahal izango dute.
d) Beti izango dute merkataritza-izaerako nortasun juridikoa.

287. 255/1997 Dekretuaren arabera, Jaurlaritzak, dekretu bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoaren zerbitzu-erakundeak sortu ahal izango ditu:

a) Nortasun juridiko propiorik gabe bakarrik.
b) Nortasun juridiko propioz hornituak.
c) Eusko Legebiltzarrak proposatzen duenean bakarrik.
d) Merkataritza-sozietate forma dutenean bakarrik.

288. 255/1997 Dekretuaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoari aplikatzekoa zaion araubide juridikoak honako hauek hartzen ditu barne:

a) Administrazio Kontseiluak onartutako barne-arauak bakarrik.
b) Osasunaren arloko Estatuko oinarrizko legeria bakarrik.
c) Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legeko arauak, Estatutu Sozialak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikagarri zaizkien lege eta xedapen orokor guztiak.
d) Sektore publikoko kontratuen legeria bakarrik.

289. 255/1997 Dekretuaren arabera, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoaren Administrazio Kontseiluari dagokio:

a) Entitate Publikoko zuzendari nagusia izendatzea eta kargutik kentzea, haren lehendakariak proposatuta.
b) Euskadiko Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorrak onartzea.
c) Osasuneko sailburuaren egintzen aurka jarritako administrazio-errekurtso arruntak ebaztea.
d) Entitate Publikoaren lehendakaritza gauzatzea.

290. 255/1997 Dekretuaren arabera, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituena, administrazio-errekurtso arrunten ezagutzaren ondorioetarako, honako hau jardungo da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoaren osasun-zerbitzuetako erakundeetako zuzendaritza-karguen goi-mailako hierarkia-organo gisa:

a) Osasuneko sailburua.
b) Entitate Publikoko zuzendari nagusia.
c) Entitate Publikoaren administrazio eta kudeaketa korporatiboko antolakuntza zentrala.
d) Entitate Publikoaren Administrazio Kontseilua.

291. Administrazio Publikoen aurreko jarduteko gaitasunari dagokionez, 39/2015 Legean arautua, adierazi baieztapen zuzena:

a) Adingabeek beti jardun dezakete beren kabuz beren eskubide eta interesen defentsan, salbuespenik gabe.
b) Ukituen taldeek, nortasun juridikorik gabeko batasunek eta ondare independenteek, edonola ere, jarduteko gaitasuna dute.
c) Ezgaitutako adingabeek ezin dute beren kabuz jardun, ezgaitzearen hedadurak dagozkien eskubide edo interesen erabilera eta defentsa ukitzen dituenean.
d) Administrazio Publikoen aurreko jarduteko gaitasuna arau zibilen arabera soilik zehazten da.

292. 39/2015 Legearen 4. artikuluaren arabera, nork dute interesdun izaera administrazio-prozeduran?

a) Prozedura sustatzen dutenek, banakako eskubide edo legezko interesen titular gisa soilik.
b) Prozedura abiarazi ez izan arren, hartzen den erabakiak uki ditzakeen legezko interesak dituztenek.
c) Ebazpenak uki ditzakeen eskubideen titularrek, behin betiko ebazpena eman bitartean prozeduran agertzen direnek.
d) Ebazpenak uki ditzakeen banakako edo taldekako legezko interesen titularrek, behin betiko ebazpena eman bitartean prozeduran agertzen direnek.

293. Interesdun izaeraren eskualdaketari dagokionez, 39/2015 Legearen arabera:

a) Interesdun izaera norberarena da beti, eta ezin da inola ere eskualdatu.
b) Interesdun izaera harreman juridiko eskualdagarri batetik eratortzen denean, eskubidedunak izaera horretan ondorengoa izango da, prozedura zein egoeratan dagoen ere.
c) Eskubidedunak interesdun izaeran ondorengo izateko, prozedurak ezin du entzunaldi izapidera iritsi izan.
d) Interesdun izaeran ondorengo izateko, instrukzio-organoaren berariazko baimena behar da.

294. 39/2015 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako pertsonen eskubideei buruz, Administrazio Publikoekiko harremanetan, adierazi baieztapen zuzena:

a) Eskubide horien titularrak dira soilik arau zibilen araberako jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoak.
b) Eskubide horiek 53. artikuluan administrazio-prozedurako interesdunei aitortzen zaizkienak ordezkatzen dituzte.
c) Eskubide horien artean ez dago Autonomia Erkidegoaren lurraldean hizkuntza ofizialak erabiltzekoa.
d) Eskubide horiek ulertu behar dira 53. artikuluan administrazio-prozedurako interesdunei aitortzen zaizkienen kalterik gabe.

295. Administrazio-prozedurako interesdunaren eskubideei dagokienez, 39/2015 Legearen 53. artikuluan arautuak, adierazi baieztapen zuzena:

a) Interesdunak edozein unetan ezagutzeko eskubidea du dagokion administrazio-isiltasunaren norabidea, Administrazioak epe barruan berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez badu.
b) Interesdunak ezin du prozedurako izapide-egintzetara sartu, behin betiko ebazpena eman arte.
c) Interesdunak alegazioak entzunaldi izapidearen ondoren bakarrik aurkez ditzake.
d) Jatorrizko agiriak ez aurkezteko eskubidea erabatekoa da, eta ez du salbuespenik onartzen.

296. 39/2015 Legearen 53.2 artikuluaren arabera, izaera zehatzaileko administrazio-prozeduretan, ustezko erantzuleek, gainera, eskubide hauek izango dituzte:

a) Egotzitako egitateen jakinarazpena jasotzeko eta alegazioak aurkezteko soilik.
b) Beren buruaren aurka ez deklaratzeko, baina behartu daitezke errudun aitortzera.
c) Egotzitako egitateen, egitate horiek osa ditzaketen arau-hausteen, ezar dakizkiekeen zehapenen, instrukzio-egilearen nortasunaren, zehapena ezartzeko eskumena duen agintariaren eta eskumen hori esleitzen duen arauaren jakinarazpena jasotzeko.
d) Prozedura osoan zehar isilik egoteko, hori ezeztapentzat interpretatu ezin daitekeelarik.

297. 39/2015 Legearen 35. artikuluko administrazio-egintzen arrazoiketari dagokionez, adierazi baieztapen OKERRA:

a) Eskubide subjektiboak edo legezko interesak mugatzen dituzten egintzak arrazoitu behar dira.
b) Aurreko jardunetan jarraitutako irizpidetik edo aholku-organoen irizpenetik aldentzen diren egintzak arrazoitu behar dira.
c) Interesdunek proposatutako frogak baztertzen dituzten egintzak arrazoitu behar dira.
d) Hautaketa-prozedurei eta lehia bidezko prozedurei amaiera ematen dieten egintzen arrazoiketak banakako eta erabateko arrazoiketa eskatzen du beti, deialdiak arautzen dituzten arauek ezarritakoaz bestelakoa.

298. 39/2015 Legearen 39. artikuluaren arabera, administrazio-egintzen eraginkortasunari buruz:

a) Administrazio-egintzek interesdunari jakinarazitako unetik sortuko dituzte ondorioak soilik, salbuespenik gabe.
b) Administrazio-egintzak baliozkotzat joko dira eta ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, egintza horietan besterik xedatzen ez bada.
c) Administrazio-egintzen atzeraeraginezko eraginkortasuna debekatuta dago edonola ere.
d) Administrazio-egintzen baliozkotasun-presuntzioak ez du onartzen aurkako frogarik.

299. Administrazio-egintzen eraginkortasun atzeratuari buruz, 39/2015 Legearen 39.2 artikuluaren arabera:

a) Eraginkortasuna atzeratuko da, egintzaren edukiak hala eskatzen duenean edo jakinarazpena, argitalpena edo goragoko onespena baldintza gisa duenean.
b) Eraginkortasun atzeratua lege-mailako arau batean berariaz aurreikusitako kasuetan soilik aplikatzen da.
c) Eraginkortasuna beti atzeratzen da jakinarazpenaren unera arte, beste kausarik egoteko aukerarik gabe.
d) Eraginkortasun atzeratuak goragoko organo hierarkikoaren berariazko baimena eskatzen du.

300. Administrazio-egintzen atzeraeraginezko eraginkortasunari dagokionez, 39/2015 Legearen 39.3 artikuluan aurreikusia, adierazi baieztapen zuzena:

a) Atzeraeraginezko eraginkortasuna eman ahal izango da, interesdunak eskatzen duen bakoitzean, beste baldintzarik gabe.
b) Atzeraeragina egintzak deuseztatutako egintzen ordez ematen direnean bakarrik dator bidezko.

c) Atzeraeraginezko eraginkortasunak ezin du inoiz beste pertsonen eskubide edo legezko interesik kaltetu, baina bidezkoa da egitatezko egoerak atzeraeragineko egunean ez zeudenean ere.
d) Atzeraeraginezko eraginkortasuna eman ahal izango da egintzek interesdunarentzat ondorio mesedegarriak sortzen dituztenean, beharrezko egitatezko egoerak egintzaren eraginkortasunaren atzeraeragineko egunean jadanik existitzen baziren eta horrek beste pertsonen eskubide edo legezko interesik kaltetzen ez badu.

301. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak adierazten du Euskadiko Aurrekontu Orokorrak honako hauek direla:

a) Aurrekontuko diru-sarrera eta gastuei buruzko urteko txostena.
b) EAEko baliabideen administrazio egokia kontrolatzeko tresna.
c) Jaurlaritzaren plan estrategikoa ekitaldi bakoitzerako.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

302. Adieraz ezazu Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legean zein elementu EZ den aipatzen, Euskadiko Aurrekontu Orokorren izaeraren zati gisa:

a) Sarreren eta gastuen egoera-orriak.
b) Zorpetzeko gehienezko muga.
c) Bermeak emateko gehieneko muga.
d) Europako diru-laguntzen programak.

303. Euskadiko Aurrekontu Orokorren ekitaldi ekonomikoa edo aurrekontu-ekitaldia bat dator honako hauekin:

a) Ekitaldi ekonomikoa bat dator urte naturalarekin eta aurrekontu-ekitaldia legegintzaldiarekin.
b) Urte naturalarekin.
c) Estatuko zerga-ekitaldiarekin.
d) Legegintzaldiarekin.

304. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeen helburu nagusia honakoa da:

a) EAEren zorpetzea onartzea.
b) EAEko Aurrekontu Orokorrak onartzea.
c) EAEko berezko zergak onartzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

305. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, honakoak dira Eusko Legebiltzarraren eskumenekoak:

a) Administrazioaren ordainketa guztiak agintzea.
b) Euskadiko Aurrekontu Orokorrak onartzea, horien jarraipena egitea eta kontrolatzea.
c) Sail bakoitzaren berezko gastuak baimentzea.
d) Jaurlaritzak onartutako politika ekonomikoa betetzea/egitea.

306. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, EZ dela Eusko Legebiltzarraren eskumena:

a) EAEko finantza- eta ekonomia-eragiketa handiak onartzea.
b) EAEko ekonomia- eta finantza-politikako oinarrizko jarraibideak zehaztea.
c) EAEko berezko zergak ezartzea edo erreformatzea.
d) Jaurlaritzak EAEn, hala badagokio, egiten duen urte anitzeko jarduera ekonomikoa planifikatzea.

307. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak ezartzen du Eusko Legebiltzarraren eskumena dela, bere aurrekontuari dagokionez:

a) Onartzea, EAEko Aurrekontu Orokorretan sartuta.
b) Onartzea, EAEko Aurrekontu Orokorretan sartu gabe.
c) Egitea eta betetzea.
d) Egitea, baina ez betetzea.

308. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, Jaurlaritzaren eskumenekoak honakoak dira:

a) EAEko Aurrekontu Orokorren lege-proiektuak onartzea, eta ogasunaren eta finantzen arloan eskumena duen sailari bidaltzea.
b) Bere izaera edo garrantziagatik Jaurlaritzaren ezagutza behar duen eta Legebiltzarraren eskumenekoa ez dena.
c) Ogasun Nagusiaren eskubideen administrazioa, kudeaketa eta eraginkortasuna.
d) EAEko jarduera ekonomikoaren kontabilitatea eta kontrola.

309. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, Aurrekontu Orokorren Lege-proiektua, Legebiltzarrera bidali aurretik, onartzeko eskumena honako organoak du:

a) Jaurlaritzak.
b) Legebiltzarrak.
c) Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak.
d) Sailek.

310. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak ezartzen du honakoak direla Sailen eskumenak:

a) EAEko sektore publikoko erakunde instituzionalen aurrekontu-likidazioa baimentzea.
b) EAEko jarduera ekonomikoaren kontabilitatea eta kontrol kontu-hartzailea.
c) Euren aurrekontuen aurreproiektua prestatzea, eta aurrekontuei atxikitako gastuetarako kredituak kudeatzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

311. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, adieraz ezazu Euskadiko Ogasun Nagusiak zenbat eskubide mota onartzen dituen:

a) Hiru motatakoak: publikoak, pribatuak eta mistoak.
b) Bi motatakoak: izaera publikoak dutenak eta izaera pribatuak dutenak.
c) Lau motatakoak: tributarioak, ez-tributarioak, publikoak eta pribatuak.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

312. Adieraz ezazu zer ezaugarri dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak aitortzen dituen eskubide publikoek:

a) Kontratu pribatuetatik soilik sortzen direla.
b) Ahal publikoak erabiltzeagatik, erakunde publikoenak direla.
c) Beti bide judizialetik kudeatzen direla.
d) Zergak bakarrik sartzen direla.

313. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak honako diru-sarrera hau jasotzen du zuzenbide publikoko diru-sarrera gisa:

a) Merkataritza-salmenten mozkinak.
b) Isunen emaitza.
c) Herentziak eta dohaintzak.
d) Atxikita ez dauden ondare-ondasunen etekinak.

314. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, honakoak dira EAEren berezko zergak:

a) EAEren berezko zergak, Ekonomia Itunean sartuta edo aurreikusita daudenak.
b) EAEk herri-lanak egitearen ondorioz zergapekoak onura bat lortzeagatik ezartzen diren kontribuzio bereziak.
c) Espazio pribatuaren erabilera publikoagatik edo aprobetxamendu publikoagatik dauden tasak.

d) Erantzun guztiak okerrak dira.

315. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak, zergen gaineko errekargua ezar daitekeen egoera hau EZ du jasotzen:

a) Ondarearen gaineko zerga.
b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
c) Zorpetzearen gaineko tributuak.
d) Jokoaren gaineko tributua.

316. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak honakoa jasotzen du zuzenbide pribatuko diru-sarrera gisa:

a) Administrazio-isunak.
b) Estatuaren transferentziak.
c) Zergen gaineko errekarguak.
d) Erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita ez dauden ondasunen etekinak.

317. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak, zuzenbide pribatuko diru-sarrera gisa EZ du honakorik jasotzen:

a) EAEko Administrazioak herentzia gisa egindako eskuraketak.
b) EAEko Administrazioak eragindako kalte-galeren kalte-ordainak.
c) EAEko Administrazioaren jabetzako ondasunak erabiltzearen ondoriozko mozkinak.
d) Zuzenbide publikoko diru-sarrera gisa hartzen ez diren beste diru-sarrera batzuk.

318. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak, izaera publikoko eskubideak honela gauzatuko direla ezartzen du:

a) Nahitaezko betetzearen bidez.
b) Diru-bilketarako administrazio-prozeduraren bidez, salbuespenak salbuespen.
c) Bide judizial bidez.
d) Beti Foru Aldundien bitartez.

319. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak, betearazpen-aldiko hainbat errekargu mota daudela adierazten du. Adieraz ezazu zein den OKERRA:

a) Premiamendu-errekargu murriztua.
b) Premiamendu-errekargu arrunta.
c) Premiamendu-berankortasunagatiko errekargua.



d) Errekargu exekutiboa.

320. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak, honako kasu honetan errekargu exekutiboa aplika daitekeela ezartzen du:

a) Zorra eta errekargu murriztua ordaintzen ez direnean.
b) Errekargu arrunta aplikatu ezin denean.
c) Premiamendu-probidentzia jakinarazi aurretik ordaintzen denean.
d) Premiamendu-probidentzia jaso ondoren ordaintzen denean.

321. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak, honako kasu honetan premiamendu-errekargua aplika daitekeela ezartzen du:

a) Errekargu arrunta aplikatu ezin denean.
b) Premiamendu-probidentzia jakinarazi aurretik ordaintzen denean.
c) Jakinarazpena jaso ondoren ordaintzen denean, probidentziaren jakinarazpena hilaren 1etik 15era bitartean egiten bada.
d) Jakinarazpena jasotzen denetik 20 eguneko epean ordaintzen denean, probidentziaren jakinarazpena hilaren 1etik 15era bitartean egiten bada.

322. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legeak ezartzen du Administrazioaren ordainketa-betebeharrak eraginkorrak izango direla:

a) Hartzekodunak eskaera egiten duenean.
b) Aurrekontua betetzearen, epai irmoaren edo diruzaintzako eragiketen ondorio direnean.
c) Betebeharraren ardura duen sailak hala erabakitzen duenean.
d) Betebeharraren ardura duen erakunde autonomoaren eta eragindako hartzekodunaren artean kontratu pribatua dagoenean.

323. Adieraz ezazu zein EZ den Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen helburua:

a) Aurrekontu orokorren edukia eta egitura arautzea.
b) Aurrekontu orokorrak egiteko prozesua arautzea.
c) Autonomia-erkidegoko fiskalitatea arautzea Aurrekontu Orokorretan.
d) Aurrekontu Orokorren kudeaketa eta betetzea arautzea.



324. Adieraz ezazu zein aurrekontu sartzen diren Aurrekontu Orokorretan, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera:

a) Sektore publiko autonomikoko erakundeenak eta bermeen eta zorpetzearen mugak.
b) Autonomia Erkidegoko udalerrienak.
c) Foru Aldundien aurrekontuak.
d) Administrazio Orokorraren aurrekontua bakarrik.

325. Adieraz ezazu hauetako zein aurrekontu EZ den sartzen Aurrekontu Orokorretan, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera:

a) Sektore publikoko fundazioak.
b) Sozietate publikoak.
c) Udalak.
d) Erakunde autonomoak.

326. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, ekonomia- edo aurrekontu-ekitaldiak honako iraupen hau izango du:

a) Bi urte.
b) Urte natural bat.
c) Hilabete berriztagarria.
d) Beharren araberako ekitaldi malgua.

327. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, Aurrekontu Orokorrek, hala badagokio, honako hauek jasoko dituzte zerga-onurei dagokienez:

a) Beren tributuei eragiten dieten onura fiskalen zenbatekoa.
b) Edozein administrazioren onura fiskalak.
c) Gobernu zentralaren zerga-onurak.
d) Udalen zerga-onurak.

328. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, EAEko Administrazioaren Aurrekontuek honakoak jaso behar dituzte:

a) Etorkizuneko inbertsioak.
b) Ekitaldian likidatu beharreko eskubide ekonomikoak.
c) Diru-bilketari lotutako gastuak.
d) Sarreren egoera-orria eta gastuen egoera-orria.

329. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, EAEko Administrazioaren Aurrekontuetako sarreren egoera-orrian honakoak jasoko dira:

a) Etorkizuneko inbertsioak.
b) Ekitaldian likidatu beharreko eskubide ekonomikoak.
c) Diru-bilketari lotutako gastuak.
d) Zergetatik aurreikusitako diru-sarrerak bakarrik.

330. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, EAEko Administrazioaren Aurrekontuetako gastuen egoera-orrian honakoak jasoko dira:

a) Ordainketa- zein konpromiso-obligazioetarako behar diren kredituak.
b) Ordainketa-obligazioetarako bakarrik behar diren kredituak.
c) Inbertsio fisikoetan egindako gastuak soilik.
d) Aurreko ekitaldian gauzatutako gastuak bakarrik.

331. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, adieraz ezazu zer jaso behar duten sarreren egoera-orriek:

a) Ekitaldirako aurreikusitako gastuak.
b) Ekitaldian likidatu beharreko baliabide finantzarioak.
c) Urte anitzekoak diren gastu-konpromisoak.
d) Zergetatik datozen diru-sarrerak bakarrik.

332. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, sarreren egoera-orrietan sartutako zenbatekoek balio bat izango dute, adieraz ezazu zein:

a) Likidatzailea, berariazko kalifikazioa izan ezik.
b) Behin-behinekoa.
c) Gutxi gorabeherakoa, berariazko kalifikazioa izan ezik.
d) Azken balioa, Estatuko araudian aldaketarik egin ezean.

333. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, foru aldundien ekarpenak honako dokumentuan jasoko dira:

a) Aldundi bakoitzaren aurrekontuan.
b) EAEko Administrazioaren Aurrekontuko sarreren egoera-orrian.
c) Dokumentu independente batean.



d) EAEko gastuen egoera-orrietan.

334. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, zerga propioak eta zergen gaineko errekarguak honako dokumentuan jasoko dira:

a) Dagokion erakundearen aurrekontuko sarreren egoera-orrian.
b) Foru aldundien aurrekontuan.
c) Sektore publiko autonomikoko dagokion erakundearen aurrekontuko gastuen egoera-orrian.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

335. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenek adierazten dutenez, EAEk Estatuko Aurrekontuetatik jasotzen dituen esleipenak honela jasoko dira:

a) Ezohiko gastu gisa.
b) Berme Funtsari atxikitako diru-sarrera gisa.
c) Udalen diru-sarrera gisa.
d) Erakunde hartzailearen aurrekontuko diru-sarreren egoera-orrian.

336. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, sarreren egoera-orriek, zorpetzeari dagokionez, honakoak jaso behar dituzte:

a) Zorpetzearen bidez lortutako baliabideen zenbatekoa.
b) Ordaindu beharreko interesak bakarrik.
c) Dagoeneko formalizatuta dagoen zorra bakarrik.
d) Epe laburreko zorpetzea bakarrik.

337. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera, sarreren egoera-orriek honakoa ere jasoko dute:

a) Langile-gastuetarako funtsak.
b) EAEren eskumenekoak ez diren gaien gastu-proiektuak gauzatzeko jasotako funtsak.
c) Tokiko tasengatik diru-sarrerak.
d) Ondarea saltzeagatik diru-sarrerak.

338. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, gastuen egoera-orriek, aurretik hartutako betebeharrei dagokienez, honakoak jaso behar dituzte:

a) Eragindako sarrerentzat diren kredituak.
b) Etorkizuneko obligazioei bakarrik bideratutako kredituak.
c) Sortuta dauden gastuetarako beharrezkoak diren kredituak.
d) Moduluka finkatutako kreditu aldakorrak.

339. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, adieraz ezazu zertarako balio duten konpromiso-kredituek:

a) Abian diren finantza-eragiketak finantzatzeko.
b) Moduluen araberako zenbatekoa duten gastuetarako.
c) Hurrengo ekitaldietan gauzatzen diren betebehar juridikoetarako.
d) Mugaeguneratutako zorrak ordaintzeko.

340. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, adieraz ezazu nola aplikatu behar diren Administrazioaren eta haren organismoen ordainketa-kredituak:

a) Handitu daitezkeen konpromiso-kredituak estaltzera.
b) Gerora sortutako edozein premia betetzera.
c) Horiekin baimenduta zeuden helburuak betetzera.
d) Kudeatzen dituen sailaren irizpidearen arabera.

341. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, adieraz ezazu zer izaera duten ordainketa-kredituek:

a) Automatikoki zabalgarriak.
b) Mugaduna: ezin da gastatu onartutako zenbatekoa baino gehiago.
c) Ez-mugadunak.
d) Aldakorra diru-bilketaren arabera.

342. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, adieraz ezazu zein den ordainketa-kreditu orokorraren helburua:

a) Beste ordainketa-kreditu batzuen zuzkiduren gabeziei erantzutea.
b) Zuzkidurarik gabeko premia berriei erantzutea.
c) Zabalgarri bezala sailkatutako kredituak finantzatzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

343. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, adieraz ezazu zein den kreditu orokorraren hasierako zuzkiduraren eta gehikuntzen muga:

a) Aurrekontuaren %3.
b) Ordainketa-kreditu guztien %5.
c) Ordainketa-kreditu guztien %10.
d) Ez dago mugarik.

344. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, adieraz ezazu zer ezaugarrik definitzen dituen kreditu zabalgarriak:

a) Izaera mugagabea duten ordainketa-kredituak dira.
b) Araudi bidez murriztu beharreko ordainketa-kredituak dira.
c) Hasiera batean izaera mugatua duten ordainketa-kredituak izanik, arau-moduluen arabera finkatzen direnak izango dira.
d) Hasiera batean izaera mugatua duten ordainketa-kredituak izanik, handitu egin daitezkeenak arauzko formalitateak bete ondoren.

345. Enpresaren ekonomia. Zuzendaritza estrategikoa: kontzeptua. Zuzendaritza estrategikoa hau da:

a) Ziklo ekonomikoaren idazpenak eta urteko itxierak arautzeko kontabilitate-plan bat.
b) Helburuak, politikak eta planak zehazten dituzten estrategiak garatzea.
c) Nominen eta lan-txanden agiria.
d) Hileko salmentak neurtzeko aginte-taula bat.

346. Enpresaren ekonomia. Zuzendaritza estrategikoko prozesua: faseak. Adieraz ezazu zein den sekuentzia orokorra:

a) Formulatu, kontrolatu, gauzatu, birdefinitu. Aurrekontuak programatu; saldu; auditatu; zuzendu eta gainbegiratu.
b) Funtsezko adierazleak definitzea; aurrekontuak egitea; auditatzea; zehatzea.
c) Misioa/helburuak/estrategiak identifikatzea; barne-azterketa; kanpo-azterketa; formulatzea; inplementatzea; ebaluatzea.
d) Diagnostikatu; finantzatu; saldu; itxi.

347. Enpresaren ekonomia. Zuzendaritza estrategikoa: kontzeptu nagusia. Zuzendaritza estrategikoa honela ulertzen da:

a) Urteko kontabilitate-plan operatibo bat bezala.
b) Helburuak, politikak eta planak dituzten estrategiak garatzea.

c) Lanpostuen eta soldaten zerrenda bezala.
d) Ekitaldiko kanpo-auditoretza bat.

348. Enpresaren ekonomia. AMIA matrizeak honakoa biltzen du:

a) Barne-indarrak eta -ahuleziak; kanpo-aukerak eta -mehatxuak.
b) Hiru hilabetero diruzaintzako proiekzioak eta sei hilabetero egunkari berrikusiak.
c) Sektoreko lege-arriskuak baino ez.
d) Eremu geografikoen arabera merkatu-kuotak bakarrik.

349. Enpresaren ekonomia. Laplaceren irizpidea (ziurgabetasuna). Probabilitaterik ezagutzen ez denean, Laplacek:

a) Aukera bakoitzaren maximoa erabiltzen du eta aldatu minimora iritsi arte.
b) Aukera bakoitzaren minimoa aukeratzen du, haztapenik gabe.
c) Zero probabilitatea ematen die egoerarik okerrenei.
d) Aukera bakoitzaren batez bestekoa kalkulatzen du eta handiena aukeratzen du (emaitzak aldekoak badira).

350. Enpresaren ekonomia. Erabakitzeko irizpideak eta tresnak. Wald irizpidea (ezkorra). Irabazi gisa interpretatutako emaitzekin, Waldek honako aukeratzen du:

a) Bariantza txikieneko alternatiba, bere arriskuarekin biderkatuta.
b) Batez besteko bakun handiena duena.
c) Emaitzarik txarrena maximizatzen duena (minimoaren maximoa).
d) Lerroka eta zutabeka nagusitzen dena.

351. Enpresaren ekonomia. Erabakitzeko irizpideak eta tresnak. Hurwiczen irizpidea. Hurwiczek honela erabakitzen du:

a) Aukera bakoitzaren emaitza onena eta txarrena haztatuz, baikortasun-koefiziente batekin eta haren osagarriarekin.
b) Emaitza guztien batez besteko geometrikoaren bidez eta onenari txarrena kenduz.
c) Galera erlatiboa minimizatuz, atsekabe-matrizerik gabe.
d) Probabilitate subjektibo handiena duen egoera aukeratuz.

352. Enpresaren ekonomia. Erabakitzeko irizpideak eta tresnak. Savage irizpidea (atsekabea) honetan datza:

a) Atsekaberik edo damurik handiena (minimax regret) minimizatzea, atsekabe-matrizetik abiatuta.

b) Zenbatzeko denborak minimizatzea, arriskua kontuan hartu gabe denboren matrizetik abiatuta.
c) Aldeko egoeren kopurua maximizatzea, aldeko egoeren matrizetik abiatuta.
d) Desbideratze tipiko txikiena aukeratzea.

353. Enpresaren ekonomia. Erabaki finantzarioak. Mozkin ekonomikoa honakoa da:

a) Akziodunentzako fluxu librea, zorra kenduta eta zorren interesen aurrekoa.
b) Zerga eta dibidendu ondorengo mozkina.
c) Aktiboek (operatiboak) sortutakoa, zorren interesen aurretik.
d) Finantza-gastuen ondorengo kontabilitate-emaitza.

354. Enpresaren ekonomia. Erabaki finantzarioak. Mozkin garbia honela lortzen da:

a) Mozkin ekonomikoa – ezohiko hornidurak.
b) Mozkin ekonomikoa – zorren interesak.
c) EBITDA – amortizazioak.
d) Mozkin ekonomikoa – banatutako dibidenduak.

355. Enpresaren ekonomia. Erabaki finantzarioak. Errentagarritasun ekonomikoa eta errentagarritasun finantzarioa. Aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Errentagarritasun ekonomikoa mozkin garbiaren eta aktibo osoaren arteko zatiketa da, eta errentagarritasun finantzarioa mozkin ekonomikoaren eta baliabide propioen arteko zatiketa da.
b) Errentagarritasun ekonomikoa mozkin ekonomikoaren eta salmenta prezioan baloratutako salmenten arteko zatiketa da, eta errentagarritasun finantzarioa mozkin garbiaren eta zor guztien arteko zatiketa da.
c) Errentagarritasun ekonomikoa mozkin likidoaren eta aktibo osoaren arteko zatiketa da, eta errentagarritasun finantzarioa mozkin likidoa eta kanpo-baliabideen arteko zatiketa da.
d) Errentagarritasun ekonomikoa mozkin ekonomikoaren eta aktibo osoaren arteko zatiketa da, eta errentagarritasun finantzarioa mozkin garbiaren eta baliabide propioen arteko zatiketa da.

356. Enpresaren ekonomia. Oreka ekonomiko-finantzarioa. Epeen elkarrekikotasunaren irizpidearen arabera, aktibo finkoa honela finantzatu behar da:

a) Kapital iraunkorrekin (propioak eta epe ertain eta luzerako zorrak).
b) Kreditu bidez kobratutako etorkizuneko salmenten errotazioarekin.
c) Unean uneko KPIaren arabera ordaindutako kanpainen kutxako soberakinekin.
d) Epe laburreko pasiboarekin bakarrik.

357. Enpresaren ekonomia. Maniobra-funtsa (MF): identitateak. Maniobra-funtsa honakoa da:

a) MF = Aktibo totala – Pasibo totala.
b) MF = Aktibo zirkulatzailea – Epe laburreko pasiboa.
c) MF = Aktibo finkoa − Arrisku ekonomiko eguneratua.
d) MF = Baliabide propioak – Epe laburreko pasiboa.

358. Enpresaren ekonomia. Batez besteko heltze-aroa. Batez besteko heltze-aro ekonomikoa honakoa da:

a) Enpresaren ziklo ekonomikoaren barruan, epe labur batean baino ez kobratzeko epea.
b) Hornitzaileei saldu eta ordaindu arteko denbora.
c) Produkziorako erabilitako ibilgetu materialaren balio-galeraren epea.
d) Ustiapen zikloaren iraupena: hornitzea, produzitzea, saltzea eta kobratzea.

359. Enpresaren ekonomia. Batez besteko heltze-aroa (BHA). Batez besteko heltze-aro finantzarioa honela kalkulatzen da:

a) BHA eta bezero guztien kobrantza batuz gehienez ere urtebeteko epean.
b) BHA zati kostu-prezioan baloratutako salmentak ken eskainitako deskontuak eginez.
c) BHAri hornitzaileei ordaintzeko batez besteko heltze-aroa kenduta.
d) BHA aktiboaren errotazioarekin biderkatuz.

360. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Balio Eguneratu Garbia (BEG), inbertitzeko erabakian. Aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Proiektua bideragarria da bakarrik balio eguneratua prezioa baino handiagoa bada; BEG, beraz, < 0 da.
b) Proiektua bideragarria da BEG = 0 denean, balioa kostuarekin berdintzen delako eta irabazi segurua lortzen delako.
c) Proiektua bideragarria da BEG > 0 denean, fluxuen balio eguneratuak hasierako ordainketa gainditzen duelako.
d) Proiektua bideragarria da BEGa deskonturik gabeko fluxuen batuketa aritmetikoarekin bat datorrenean.

361. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. *BEG(k)* funtzioaren izaera inbertsio sinpleetan (BEG= Balio Eguneratu Garbia). Inbertsio sinpleetan *BEG(k)*-ri dagokionez, aukera ezazu baieztapen OKERRA:

a) k = 0 denean, BEG = S − A, S fluxuen batuketa aritmetikoa izanik eta A hasierako ordainketa.
b) k handitu ahala, *BEG(k)* etengabe murrizten da − A-ra hurbildu arte.
c) Inbertsio sinpleetan, *BEG(k)*-ek behin bakarrik gurutzatzen du ardatza; beraz, BET (Barneko Errentagarritasun Tasa) bakarra dago.
d) BEGaren lehenengo deribatua k-rekiko positiboa da, kurba, beraz, ganbila eta gorakorra da.

362. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Balio Eguneratu Garbia (BEG) eta gauzagarritasuna. BEG irizpidearen arabera, adieraz ezazu noiz izango den inbertsio-proiektu bat bideragarria:

a) Balio eguneratua hasierako ordainketa baino txikiagoa denean, baina beti zero baino handiagoa.
b) Balio eguneratua hasierako ordainketarekin zehatz-mehatz bat datorrenean.
c) Deskontatutako fluxuak kenduta lortzen den balio eguneratua hasierako ordainketa baino handiagoa denean.
d) Kutxako fluxuen etorkizuneko balioa hasierako ordainketa baino handiagoa denean.

363. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Adieraz ezazu zer esan nahi duen proiektu baten Balio Eguneratu garbia (BEG) zero izateak:

a) Inbertsioak balio eguneratua suntsitu egiten duela, inbertsioan zehar egindako ordainketak kontuan hartu gabe.
b) Inbertsioak galera finantzarioak sortzen dituela.
c) Inbertsioa edozein aukera baino hobea dela.
d) Inbertsioak berdin diola inbertitzaileari, inbertitutakoa eskatutako tasan zehatz-mehatz berreskuratzen baitu.

364. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Eskatutako errentagarritasunaren (k) eta Barneko Errentagarritasun Tasaren (BET) arteko erlazioa. Inbertsio sinple bat ez da bideragarria izango:

a) Bere BETa eskatutako errentagarritasuna (k) baino handiagoa denean.
b) Bere BETa bat datorrenean eskatutako errentagarritasunarekin (k).
c) Bere BETa eskatutako errentagarritasuna (k) baino txikiagoa denean.
d) Bere BETa kutxako fluxuen batura baino handiagoa denean.

365. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Balio Eguneratu Garbia (BEG) deskontu tasaren funtzio gisa. Adieraz ezazu zer ezaugarri duen *BEG(k)* funtzioak inbertsio sinple batean:

a) Gorakorra da eta ardatz horizontalarekiko ganbila.
b) Beherakorra da eta ardatz horizontalarekiko ganbila.
c) Konstantea da k edozein baliorentzat.
d) Ardatz horizontalarekiko ahurra da eta gorakorra.

366. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Inbertsio sinple batean:

a) Kutxako fluxuetan hainbat zeinu aldaketa daude.
b) Fluxuen batura beti da negatiboa, hasierako ordainketak kenduta ere.
c) Kutxako fluxu guztiak ez-negatiboak dira, hasierako ordainketa izan ezik.
d) Inflazio handia du.

367. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Barneko Errentagarritasun Tasa (BET) interpretatzea. Inbertsio proiektu baten BETa honela definitzen da:

a) Balio Eguneratu Garbia (BEG) zero izatea eragiten duen deskontu-mota.
b) Balio Eguneratu Garbia (BEG) mailarik altuenetan maximizatzen duen interes-tasa.
c) KPIaren (Kontsumo Prezio Indizea) arabera eguneratutako kapitalaren batez besteko kostu haztatua.
d) Proiektuaren errendimendurik handiena.

368. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Proiektu finantzario ez-sinple baten ezaugarriak hauek dira:

a) Zeinu aldaketa bakarra izatea.
b) Kutxako fluxu negatiborik ez izatea.
c) Kutxako fluxuetan zeinu-aldaketa bat baino gehiago izatea.
d) Barneko Errentagarritasun Tasa (BET) erreal positibo bat izatea beti.

369. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. BEG-BET (Balio Eguneratu Garbia-Barneko Errentagarritasun Tasa) kongruentzia proiektu sinpleetan. Adieraz ezazu nola erlazionatzen diren BEG eta BET irizpideak Proiektu sinpleetan:

a) Beti eramaten dute kontrako erabakiak hartzera, ziurgabetasun egoera edozein izanda ere.
b) Elkarren artean independenteak dira eta, beraz, ez dute eraginik.
c) BETa baliozkoa izango da baldin eta BEGa negatiboa bada.
d) Kongruenteak dira eta erabaki berera eramaten dute.

370. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Finantzaketa-kostua. Finantzaketa iturri baten kostua honela kalkulatzen da:

a) Interesen batura, kutxako fluxuarekin zatituz.
b) Balio Eguneratu Garbia (BEG) zero izatea egiten duen deskontu-tasa bezala.
c) Balio Eguneratu Garbia (BEG) eta Barneko Errentagarritasun Tasaren (BET) arteko diferentzia.
d) Ordainketa-fluxuen batez besteko aritmetikoa.

371. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Metodo estatikoa: berreskuratze epea. Adieraz ezazu zein den *pay-back* metodoaren mugarik nagusiena:

a) Inbertsio osoan fluxuak konstanteak eta positiboak izatea eskatzen du.
b) Diruaren denbora-balioa inbertsioaren hasieran bakarrik hartzen du kontuan.
c) Ezin dira iraupen bereko proiektuak alderatu.
d) Etorkizuneko interes-tasei buruzko informazioa eskatzen du.

372. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Konprometitutako unitate monetario bakoitzeko guztizko fluxua. Metodo estatiko honi egiten zaion funtsezko kritika bat honakoa da:

a) Ez du uzten Balio Eguneratu garbia (BEG) kalkulatzen, inbertsioan zehar ez badago kutxako fluxu positiborik.
b) Magnitude heterogeneoak gehitzen ditu, une desberdinei buruzkoak baitira.
c) Ez du kutxako fluxurik erabiltzen.
d) Deskontu-tasa handiegiak erabiltzen ditu.

373. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Konprometitutako unitate monetario bakoitzeko urteko batez besteko kutxako fluxua. Metodo honek honako joera du:

a) Proiektu luzeenei eta ziurgabetasun handikoei laguntzea.
b) Iraupen handiko proiektuak kaltetzea.
c) Proiektuen arteko lehentasuna berdintzea.
d) Errentagarritasuna artifizialki handitzea.

374. Inbertsioak eta finantzaketa-iturriak hautatzea. Inbertsioak hautatzeko beste metodo batzuk. Kostuak alderatzeko irizpidearen ezaugarriak honakoak dira:

a) Kutxako fluxu beti positiboak dituen Balio Eguneratu Garbian (BEG) oinarritutako metodo dinamikoa izatea.
b) Barneko Errentagarritasun Tasarekin (BET) bat etortzea beti.
c) Inbertsioak baloratzen ez uztea, ezta errentagarritasuna kalkulatzea ere.

d) Kutxako fluxu deskontatuak soilik erabiltzea.

375. Arriskua eta enpresen balorazioa. Arrisku motak. Adieraz ezazu zein den zuzenean lehenengo aldatzen den aldagaia, salmentak aldatzen direnean:

a) Mozkin likidoa (zergen ondoren).
b) Ustiapeneko mozkina edo mozkin operatiboa.
c) Akziodunen errentagarritasun finantzarioa.
d) Kapitalaren batez besteko kostu haztatua.

376. Arriskua eta enpresen balorazioa. Adieraz ezazu zein analisik aztertzen duen mozkin garbiek mozkin ekonomikoarekiko duten sentsibilitatea:

a) Apalankmendu operatiboak.
b) Apalankamendu finantzarioak.
c) Puntu hilak.
d) Aukera-kostuak.

377. Arriskua eta enpresen balorazioa. Aukera ezazu arriskuarekin eta zorpetzearekin baieztapen koherentea duena:

a) Errentagarritasun ekonomikoa < zorraren kostua bada, zorpetzeak errentagarritasun finantzarioa handitu egiten du.
b) Errentagarritasun ekonomikoa = zorraren kostua bada, zorpetzeak beti murrizten du errentagarritasun finantzarioa.
c) Errentagarritasun ekonomikoa > zorraren kostua bada, zorpetzeak errentagarritasun finantzarioa handitu dezake.
d) Errentagarritasun finantzarioa zorpetzearekiko independentea da.

378. Arriskua eta enpresen balorazioa. Adieraz ezazu zein egoerak areagotzen duen kaudimengabezia teknikorako probabilitatea:

a) Zorpetze-maila handitzea.
b) Kostu aldakor unitarioak murriztea, salmentak mantenduz.
c) Kontribuzio-marjina handitzea.
d) Zerga-tasa murriztea.

379. Arriskua eta enpresen balorazioa. Unitate fisikoetan, “puntu hila” honakoan lortzen da:

a) Diru-sarrerek kostu aldakorrak baino ez dituztenean estaltzen.

b) Marjina gordin osoa kostu finkoen berdina denean.
c) Mozkin likidoa zero denean.
d) Prezioa, unitateko kostu aldakorraren berdina denean.

380. Arriskua eta enpresen balorazioa. Puntu hil bera (X) baina egitura desberdina duten bi enpresak (batek kostu finko altuagoak eta unitateko kostu aldakor baxuagoak ditu):

a) Arrisku ekonomiko bera dute.
b) Kostu finko handiagoak dituen enpresak galera txikiagoak izango ditu baldin eta saldutako edo produzitutako unitate-kopurua < X bada.
c) Kostu finko handiagoak dituen enpresak mozkin handiagoak izango ditu baldin eta saldutako edo produzitutako unitate-kopurua > X bada, eta galera handiagoak saldutako edo produzitutako unitate-kopurua < X bada.
d) Unitateko kostu aldakor handiagoak dituenak beti izango du mozkin handiagoa. Hau da, inoiz ez du galerarik izango.

381. Arriskua eta enpresen balorazioa. Errentagarritasun ekonomikoa < Zorren kostua (k_i) bada eta zorpetze-maila hazten badia, adieraz ezazu zer gertatzen den errentagarritasun finantzarioarekin:

a) Beti handitzen da.
b) Konstante mantentzen da.
c) Murriztu egiten da eta negatiboa izan daiteke.
d) Zorpetze-koefizienteak edo Leverage koefizienteak (L) ez dio eragiten.

382. Arriskua eta enpresen balorazioa. Kostua-bolumena-mozkina analisiaren muga esplizitu bat, ondorengoa da:

a) Prezioa eta unitateko kostu aldakorrak, inflazioaren erritmoan hazten dira inbertsio osoan zehar.
b) Prezioa, unitateko kostu aldakorra eta kostu finko konstanteak dira epe laburrean.
c) Eskaera-kurba linealak eta elastikoak.
d) Zerga-egitura aldakorra.

383. Arriskua eta enpresen balorazioa. Adieraz ezazu zer erabilera praktiko duen kostua–bolumena–mozkinaren analisiak, bere mugak edozein izanda ere:

a) Likidazioan dauden enpresak baloratzea eta merkatu-prezio on bat eskaintzea, arazorik gabe inorenganatzeko.
b) Zerga-tasa optimoa zehaztea.
c) Salmenta-aldaketen aurrean, mozkin garbian erabakiek duten eragina erakustea (adibidez, automatizatzea eta zorpetzea).

d) Merkatuko prezio bakarra finkatzea.

384. Arriskua eta enpresen balorazioa. Adieraz ezazu zein arlo ez duen barne hartzen oinarrizko kostua-bolumena-mozkinaren analisiak, hori muga bat izanik:

a) Eskariaren funtzioa (prezioa-salmentak).
b) Salmenten gaineko marjina kalkulatzea.
c) Kostu finkoak eta aldakorrak bereiztea.
d) Kostu hondoratuaren kontzeptua.

385. Kontabilitate orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, adieraz ezazu zeren ondorioz sortzen den sarrera baten aitortza:

a) Enpresaren ondare garbia handitzearena, betiere zenbatekoa fidagarritasunez zehaztu badaiteke, baldin eta kobratu bada.
b) Enpresaren ondare garbia handitzearena, betiere zenbatekoa fidagarritasunez zehaztu badaiteke, kobratu ala ez.
c) Enpresaren ondare garbia handitzearena, nahiz eta zenbatekoa fidagarritasunez zehaztu ezin badaiteke, kobratu ala ez.
d) Enpresaren ondare garbia handitzearena, nahiz eta zenbatekoa fidagarritasunez zehaztu ezin badaiteke, baldin eta kobratu bada.

386. Kontabilitate orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Aktibo baten balio bihurgarri garbia da enpresak aktibo hori merkatuan inorenganatzeagatik lor dezakeen zenbatekoa, negozioaren jarduera arruntean, hori gauzatzeko behar diren kostu estimatuak kendu gabe.
b) Balio bihurgarri garbia da etorkizunean espero diren diru-fluxuen balio eguneratua, negozioaren jarduera arruntean erabiltzearen bidez, egungo egoera kontuan hartuta eta arriskurik gabeko merkatuko interes-tasan eguneratuta.
c) Aktibo baten balio bihurgarri garbia da enpresak aktibo hori merkatuan inorenganatzeagatik lor dezakeen zenbatekoa, negozioaren jarduera arruntean, hori gauzatzeko behar diren kostu estimatuak kenduta.
d) Aktibo baten balio bihurgarri garbia da eskuratze-kostuaren edo produkzio-kostuaren zenbatekoa, amortizazio metatua eta erregistratu den narriaduragatiko edozein balio-zuzenketa metatu kendu ondoren.

387. Kontabilitate orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, urteko kontuak honako hauek osatzen dituzte: Aukera ezazu baieztapen zuzena.

a) Balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera, memoria eta auditoretza-txostena.

b) Balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera, memoria eta kudeaketa-txostena.
c) Balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera eta memoria.
d) Balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera, memoria, auditoretza-txostena eta kudeaketa-txostena.

388. Kontabilitate orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Enpresak saltzeko dauden aktibo ez-korriente gisa sailkatu du, baldin eta aktibo horren kontabilitate-balioa batez ere salmentaren bidez berreskuratuko bada, nahiz eta salmenta oso gertagarria ez izan.
b) Aktibo bat saltzeko dauden aktibo ez-korriente gisa sailkatzen den bitartean, aurretik egiten zen bezala amortizatu beharko dugu.
c) Saltzeko dauden aktibo ez-korrienteak kategoria honetan sailkatzen diren unean baloratuko dira, honako bi zenbateko hauetatik txikienaren arabera: kontabilitate balioa eta arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

389. Kontabilitate orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioen, balio-aldaketak galdu-irabazietara egozten direnean, ondorengo balioespena bi balio hauetako txikienaren arabera egingo da: kostu historikoa edo arrazoizko balioa.
b) Arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioen, balio-aldaketak galdu-irabazietara egozten direnean, ondorengo balioespena arrazoizko balioan egingo da, salmentaren ondorioz sor litezkeen kostuak kenduta.
c) Arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioen, balio-aldaketak galdu-irabazietara egozten direnean, ondorengo balioespena arrazoizko balioan egingo da, salmentaren ondorioz sor litezkeen kostuak kendu gabe.
d) Arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioen, balio-aldaketak galdu-irabazietara egozten direnean: ondorengo balioespenean arrazoizko balioan gerta litezkeen aldaketak galdu-irabazien kontura eramango dira, baldin eta, zuhurtasun-printzipioaren arabera, gastuak sortzen badituzte.

390. Kontabilitate orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Sozietateek balantze eta memoria laburtuak egin ditzakete baldin eta ekitaldiaren itxiera-datan, hiru baldintza hauetatik gutxienez bi betetzen badituzte:
   - Aktiboaren guztizkoa 4.000.000 €tik beherakoa izatea.
   - Urteko negozio-zifraren zenbatekoa 8.000.000 €tik beherakoa izatea.
   - Langile kopuru batez bestekoa 250 baino txikiagoa izatea.

b) Sozietateek balantze eta memoria laburtuak egin ditzakete baldin eta ekitaldiaren itxiera-datan, hiru baldintza hauetatik gutxienez bi betetzen badituzte:
   - Aktiboaren guztizkoa 11.400.000 €tik beherakoa izatea.
   - Urteko negozio-zifraren zenbatekoa 22.800.000 €tik beherakoa izatea.
   - Langile kopuru batez bestekoa 50 baino txikiagoa izatea.

c) Sozietateek balantze eta memoria laburtuak egin ditzakete baldin eta ekitaldiaren itxiera-datan, hiru baldintza hauetatik gutxienez bi betetzen badituzte:
   - Aktiboaren guztizkoa 11.400.000 €tik beherakoa izatea.
   - Urteko negozio-zifraren zenbatekoa 22.800.000 €tik beherakoa izatea.
   - Langile kopuru batez bestekoa 250 baino txikiagoa izatea.

d) Sozietateek balantze eta memoria laburtuak egin ditzakete baldin eta ekitaldiaren itxiera-datan, hiru baldintza hauetatik gutxienez bi betetzen badituzte:
   - Aktiboaren guztizkoa 4.000.000 €tik beherakoa izatea.
   - Urteko negozio-zifraren zenbatekoa 8.000.000 €tik beherakoa izatea.
   - Langile kopuru batez bestekoa 50 baino txikiagoa izatea.

391. Kontabilitate orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, sortzapen-printzipioak esan nahi du sarrerak eta gastuak...

a) Kobratzen edo ordaintzen direnean aintzatetsiko direla.
b) Urteko kontuak onartzen direnean aintzatetsiko direla.
c) Gertatzen direnean aintzatetsiko direla, kobratzeko edo ordaintzeko unea edozein dela ere.
d) Ekitaldi berean kobrantza badago bakarrik aintzatetsiko direla.

392. Kontabilitate orokorra. Ibilgetu materiala erregistratzeko eta baloratzeko 2. arauaren arabera, eskuratze-prezioan honakoak sartuko dira:

a) Fakturatutako prezioa eta zerga berreskuragarriak, baina inoiz ez garraio-gastuak.
b) Fakturatutako prezioan ez dira sartuko funtzionatzeko moduan jartzeko zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak.
c) Fakturatutako prezioa gehi funtzionatzeko moduan jartzeko zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak.
d) Fakturatutako prezioa bakarrik, inolako doikuntzarik gabe.

393. Kontabilitate orokorra. Ibilgetu materialaren ondorengo balioespenean, amortizazioa:

a) Metodo linealaren bidez bakarrik kalkulatzen da.
b) Bizitza erabilgarrian zehar amortiza daitekeen zenbatekoaren banaketa sistematikoa islatzen du.
c) Aktiboak merkatu-balioa galtzen badu bakarrik kontabilizatzen da.
d) Ez da existitzen aktiboa biziki erabiltzen bada.

394. Kontabilitate orokorra. Ibilgetu materialaren truke komertzial batean, jasotako elementua honela balioesten da:

a) Emandako ondasunaren kontabilitate balio garbian.
b) Emandako aktiboaren arrazoizko balioan, gehi, hala badagokio, trukean emandako diruzko kontrapartidak.
c) Emandako ondasunaren arrazoizko balioan, ken, hala badagokio, trukean emandako diruzko kontrapartidak.
d) Zero kostuan, diruzko irteerarik ez badago.

395. Kontabilitate orokorra. Izakinetan, eskuratze-prezioak EZ DITU barne hartzen honako hauek:

a) Berreskuratu ezin diren muga-zergak.
b) Garraioa gastuak.
c) Zuzenean egotz daitezkeen beste kostu batzuk.
d) Zorren interesak.

396. Izakinen narriadura kasu hauetan kontabilizatzen da:

a) Balio bihurgarri garbia eskuratze prezioa baino txikiagoa denean.
b) Arrazoizko balioa eskuratze prezioa baino handiagoa denean.
c) Prezioak igotzeko aurreikuspena dagoenean.
d) Ekitaldi itxiera ondorengo salmentak gehitu egiten direnean.

397. Kontabilitate orokorra. "Enpresak bere aktiborako egindako lanak" honela kontabilizatuko dira:

a) Sarrera galdu-irabazien kontuan eta, aldi berean, aktibo baten gehikuntza.
b) Gastu bat eta ondare garbiaren murrizketa bat.
c) Sarrera bat eta pasiboaren gehikuntza bat.
d) Diruzaintzan etorkizuneko kobrantza bat.

398. Kontabilitate orokorra. Ibilgetu ukiezinean, ikerketa-gastuak:

a) Ukiezin gisa aktibatzen dira beti.
b) Ekitaldiko gastu bezala kontabilizatzen dira, eta ukiezin gisa aktibatu ahal izango dira baldintza jakin batzuk betetzen dituzten unetik aurrera.
c) Proiektuka banaka zehaztuta badaude eta kostua epe laburrean banatu ahal bada bakarrik aktibatzen dira.
d) Finantzaketa publikoa badago aktibatzen dira.

399. Kontabilitate orokorra. Merkataritza-funtsa, Kontabilitate Plan Orokorraren arabera:

a) Ez da amortizatzen eta narriadura-probak baino ez zaizkio egiten.
b) Estimatzen zaion bizitza erabilgarrian amortizatzen da, eta, kontrako frogarik ezean, merkataritza-funtsaren bizitza erabilgarria hamar urtekoa dela ulertuko da.
c) Hasierako aintzatespenean zuzenean galdu-irabazietara eramaten da.
d) Hondar-balioari amortizazio metatua kenduta lortzen den zenbatekoan baloratuko da, eta, hala badagokio, narriadurarengatik kontabilizatutako balio-zuzenketa metatuen zenbatekoa kenduta.

400. Kontabilitate orokorra. Ondasun higiezinetan egindako inbertsioetan sailkatuko dira honakoak:

a) Ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko edo hornitzeko erabiltzen direnak.
b) Ohiko ekitaldian saltzeko daudenak.
c) Errentak edo gainbalioak lortzeko direnak, ez norberaren erabilerarako, ezta ohiko ekitaldian saltzeko ere.
d) Lurrak edo eraikinak badira, erabilera edozein dela ere.

401. Kontabilitate orokorra. Kostu amortizatuko aktibo finantzarioetan, adieraz ezazu nola kontabilizatzen diren sortutako interesak galdu-irabazien kontuan:

a) Arrazoizko balioa aplikatuz ondare garbiaren aldaketekin.
b) Interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.
c) Kostu historikoa aplikatuta.
d) Kostuaren eta balio bihurgarri garbiaren artean txikiena aplikatuz.

402. Kontabilitate orokorra. Arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioak, balio-aldaketak galdu-irabazietara egozten direnean:

a) Kostuaren eta arrazoizko balioaren arteko txikienean baloratzen dira.
b) Arrazoizko balioan baloratzen dira, transakzio-kostuak kendu gabe.
c) Arrazoizko balioan baloratzen dira, salmenta-kostuak kenduta.
d) Zuhurtasunagatiko galerak baino ez dira aintzatesten, edo erosketaren hasierako balioaren narriadura.

403. Kontabilitate orokorra. Pasibo finantzarioak: korrientearen eta ez-korrientearen arteko sailkapena, nagusiki, hauen arabera dago:

a) Interes-tasa inplizitua, pasiboa eskuratzeak dakartzan gastuak kendu ondoren.

b) Berme errealak izatea.
c) Epemuga: ≤ 12 hilabete bada, korrientea; > 12 hilabete bada, ez korrientea.
d) Zuzendaritzak birfinantzatzeko duen asmoa.

404. Kontabilitate orokorra. Atzerriko monetan, ekitaldi-itxieran diru-partidak honela baloratuko dira:

a) Kanbio-tasa historikoan.
b) Kanbio-tasan, kanbio-diferentziak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuz.
c) Ekitaldi ekonomikoko batez besteko tasan, doikuntzak zuzenean ondare garbira eramanez.
d) Arrazoizko balioan, salmenta-kostuak kenduta.

405. Kontabilitate orokorra. Mozkinen gaineko zergan, zerga geroratuen aktibo bat sortzen da:

a) Denborazko diferentzia kengarriak daudenean.
b) Denborazko diferentzia zergagarriak daudenean.
c) Etorkizunean zerga gehiago ordaintzea espero denean.
d) Aprobetxatuko ez diren zerga-oinarri negatiboak daudenean.

406. Kontabilitate orokorra. Diru-fluxuen egoerari dagokionez:

a) Beti da nahitaezkoa enpresa guztientzat, ETEak eta mikroenpresak barne.
b) Ez da urteko kontuetan sartzen.
c) Ez da nahitaezkoa balantzea eta memoria laburtuak egin ditzaketenentzat.
d) Kontuen auditoreak eskatzen badu bakarrik aurkezten da.

407. Kontabilitate orokorra. Urteko kontuak. Urteko kontuak egiteko arauen arabera, bertan agertzen den informazioak ezaugarri hauek bete behar ditu:

a) Garrantzitsua, fidagarria, konparagarria eta argia izatea, eta irudi fidela ahalbidetzen duena.
b) Auditatua izatea, baliozkoa izateko.
c) Garrantzitsua baino ez izatea, fidagarritasuna bigarren mailakoa baita.
d) Zenbakizkoa bakarrik izatea, memorian azalpenik eman gabe.

408. Kontabilitate orokorra. Negozio-konbinazioetan, merkataritza-funtsa sortzen da:

a) Konbinazioaren kostua, eskuratutako aktibo identifikagarrien arrazoizko balioa ken onartutako pasiboak baino txikiagoa bada.

b) Konbinazioaren kostua, eskuratutako aktibo identifikagarrien arrazoizko balioa ken onartutako pasiboak baino handiagoa bada.
c) Aktiboen arrazoizko balioa baino gutxiago ordaintzen bada.
d) Kontabilitate Plan Orokorraren arabera inoiz ez da sortzen.

409. Kontabilitate orokorra. Errentariak, errentamendu finantzario batean, informazio hau emango du:

a) Aktibo mota bakoitzarentzat, aktiboa hasieran zein baliotan aintzatetsi den; zenbateko hau aktiboaren arrazoizko balioarekin edo, hala badagokio, egin beharreko gutxieneko ordainketen balio eguneratuarekin bat datorren adieraziz.
b) Errentamenduagatik etorkizunean egingo diren gutxieneko ordainketen zenbateko osoaren (hala badagokio, erosteko aukera adierazita) eta, ekitaldi-itxieran duen balio eguneratuaren arteko kontziliazioa.
c) Errentamenduagatik egingo diren gutxieneko ordainketak eta horien egungo balioa, honako epe hauetako bakoitzean: urtebete arte; urtebete eta bost urte artean; bost urte baino gehiago.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

410. Kontabilitate orokorra. Langileentzako epe luzeko ordainsariengatik sortutako pasiboak:

a) Beti gastu bezala aintzatetsiko dira ordaintzen direnean.
b) Sortzapen-printzipioari eta estimazio aktuarialik onenari jarraituz aintzatesten dira.
c) Ez dira erregistratzen, Kontabilitate Plan Orokorrean arabera.
d) Ondare garbira eramaten dira.

411. Kontabilitate orokorra. BEZa eta zeharkako beste zerga batzuk:

a) Jasandako BEZ kengarria, aktiboen kostuaren parte da.
b) Erasandako BEZa, galdu-irabazien kontuan sarrera gisa agertzen da.
c) Berreskuratu ezin diren zeharkako zergak, kostuari gehitzen zaizkio.
d) Jasandako BEZ ez-kengarria ondare garbian erregistratzen da.

412. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontuan hartuta *Análisis de estados contables. Elaboración e interpretación de la información financiera. Pascual Garrido Miralles, Raúl Íñiguez Sánchez. Pirámide arg.*, kalkulatu enpresa baten ustiapeneko eragiketen diru-fluxuak, honako datuak kontuan hartuta: Aukera ezazu baieztapen zuzena.

- **Ekitaldiko emaitza zergen aurretik: 20.000 euro.**
- **Hasierako izakinak: 25.000 euro.**
- **Amaierako izakinak: 35.000 euro.**
- **Hasierako bezeroak: 10.000 euro.**
- **Amaierako bezeroak 1.000 euro.**



- **Hasierako epe luzeko zorrak: 45.000 euro.**
- **Amaierako epe luzeko zorrak: 35.000 euro.**
- **Ekitaldiko amortizazioak: 10.000 euro.**
- **Mozkinen gaineko zergaren ordainketa: 1.500 euro.**

a) Hauek dira ustiapeneko eragiketen diru-fluxuak: 27.500 euro.
b) Hauek dira ustiapeneko eragiketen diru-fluxuak: 29.500 euro.
c) Hauek dira ustiapeneko eragiketen diru-fluxuak: 37.500 euro.
d) Hauek dira ustiapeneko eragiketen diru-fluxuak: 7.500 euro.

413. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontuan hartuta *Análisis de estados contables. Elaboración e interpretación de la información financiera. Pascual Garrido Miralles, Raúl Íñiguez Sánchez. Pirámide arg.*, kapital korrienteari dagokionez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Pasibo ez-korrientearen eta aktibo ez-korrientearen arteko aldea da.
b) Aktibo ez-korrientearen eta pasibo ez-korrientearen arteko aldea da.
c) Aktibo korrientearen eta pasibo korrientearen arteko aldea da.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

414. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontuan hartuta *Análisis de estados contables. Elaboración e interpretación de la información financiera. Pascual Garrido Miralles, Raúl Íñiguez Sánchez. Pirámide arg.*, zorpetze ratioari dagokionez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Funts propioekiko onartutako ordainketa-konpromisoen zenbatekoa ebaluatzen du.
b) Erakundearen akziodunek eta hartzekodunek duten arrisku finantzarioaren neurria da.
c) Pasibo guztiak zati aktibo guztiak eginda kalkulatzen da.
d) Pasibo ez-korrienteak zati aktibo guztiak eginda kalkulatzen da.

415. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontuan hartuta *Análisis de estados contables. Elaboración e interpretación de la información financiera. Pascual Garrido Miralles, Raúl Íñiguez Sánchez. Pirámide arg.*, apalankamendu finantzarioari dagokionez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Gainerako faktoreek konstante jarraitzen badute, zorpetzea handitzeak apalankamendu finantzarioa murrizten du.
b) Gainerako faktoreek konstante jarraitzen badute, aktiboen guztizkoa handitzeak apalankamendu finantzarioa handitzen du.
c) Gainerako faktoreek konstante jarraitzen badute, ondare garbia handitzeak apalankamendu finantzarioa murrizten du.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

416. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontuan hartuta *Análisis de estados contables. Elaboración e interpretación de la información financiera. Pascual Garrido Miralles, Raúl Íñiguez Sánchez. Pirámide arg.*, lehengaien biltegiaren errotazioa honela kalkulatzen da: Aukera ezazu baieztapen zuzena.

a) Lehengaien erosketak zati lehengaien amaierako izakinak.
b) Lehengaien erosketak zati lehengaien batez besteko izakinak.
c) Lehengaien kontsumoa zati lehengaien batez besteko izakinak.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

417. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontuan hartuta *Análisis de estados contables. Elaboración e interpretación de la información financiera. Pascual Garrido Miralles, Raúl Íñiguez Sánchez. Pirámide arg.*, *Price to book* ratioa honela kalkulatzen da: Aukera ezazu baieztapen zuzena.

a) Akzioaren kotizazio-prezioa zati ekitaldiko emaitza.
b) Akzioaren kotizazio-prezioa zati akzioaren kontabilitate-balioa.
c) Mozkina zati akzioaren kontabilitate-balioa.
d) Erantzun guztiak okerrak dira

418. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontuan hartuta *Análisis de estados contables. Elaboración e interpretación de la información financiera. Pascual Garrido Miralles, Raúl Íñiguez Sánchez. Pirámide arg.*, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Hornidurak pasiboak dira, zenbatekoari edo kitatuko diren datari dagokionez zehaztugabeak.
b) Hornidurak pasiboak dira, zenbatekoari dagokionez bakarrik badira zehaztugabeak.
c) Kontingentziak pasiboak dira, eta pasibo korrientean edo pasibo ez-korrientean agertuko dira, enpresak aktibo baten jabetzari uko egin behar dion unearen arabera.
d) Kontingentziak pasiboak dira, zenbatekoari edo kitatuko diren datari dagokionez zehaztugabeak.

419. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontuan hartuta *Análisis de estados contables. Elaboración e interpretación de la información financiera. Pascual Garrido Miralles, Raúl Íñiguez Sánchez. Pirámide arg.*, Galdu-irabazien kontuari dagokionez, aukera ezazu baieztapen OKERRA:

a) Ibilgetuaren narriadura-gastuak kontuan hartzen dira ustiapeneko emaitza kalkulatzean.
b) Ibilgetuaren narriadura-gastuak kontuan hartzen dira ekitaldiko emaitza kalkulatzean.
c) Ibilgetuaren narriadura-gastuak kontuan hartzen dira emaitza finantzarioa kalkulatzean.
d) Ibilgetuaren narriadura-gastuak kontuan hartzen dira zergen aurreko emaitza kalkulatzean.



420. Kontabilitate-egoeren analisia. Analisi bertikala edo estatikoa honetan datza:

a) Ekitaldi desberdinetan partidak alderatzea, haien bilakaera aztertzeko.
b) Ondare-masa bakoitzak ekitaldi batean duen pisu erlatiboa aztertzea.
c) Likidezia-ratioak bakarrik kalkulatzea.
d) Emaitzaren urte arteko aldaketen arrazoiak zehaztea.

421. Kontabilitate-egoeren analisia. Analisi horizontala edo dinamikoa honetan datza:

a) Balantzearen egitura ekitaldi batean aztertzea.
b) Partida bakoitzaren bilakaera aztertzea, aldaketen edo zenbaki-indizeen bidez.
c) Aktiboen errotazioa kalkulatzea.
d) Ustiapeneko emaitza errepikaria identifikatzea.

422. Kontabilitate-egoeren analisia. Analisia egiteko, aktibo korrientearen birsailkapen garrantzitsu bat honakoa da:

a) Kontu guztiak multzo bakar batean elkartzea.
b) Aktibo korrientean banatzea bihurgarri baldintzatua, bihurgarri ziurra eta erabilgarria.
c) Aktibo korrientetik izakinak kentzea.
d) Aktibo korriente guztiak finantzario gisa sailkatzea.

423. Kontabilitate-egoeren analisia. Errotazio-funtsa positiboa da honako kasuan:

a) Aktibo korrientea pasibo korrientea baino handiagoa denean.
b) Pasibo korrientea aktibo korrientea baino handiagoa denean.
c) Aktibo ez-korrientea ondare garbia baino handiagoa denean.
d) Pasibo totala aktibo totala baino handiagoa denean.

424. Kontabilitate-egoeren analisia. Errotazio-funtsa negatiboa izateak, honakoa adierazten du:

a) Egiturazko gehiegizko likidezia duela.
b) Ordainketa-etendura posiblea (hartzekodunen konkurtsoa) likidezia nahikorik ez izateagatik.
c) Finantza-pasibo bat ere ez izatea.
d) Errentagarritasun handia.



425. Kontabilitate-egoeren analisia. Adieraz ezazu zer neurtzen duen lehengaien biltegiko errotazioak:

a) Saldutako produktuak direla-eta, bezeroen kreditua erabilgarri bihurtzen den batez besteko maiztasuna.
b) Biltegia husteko eta materialak produkzio-prozesura pasatzeko batez besteko maiztasuna.
c) Salmentak murriztea.
d) Pasibo korrientearen gehikuntzak.

426. Kontabilitate-egoeren analisia. Bataz besteko heltze-aroak honakoa neurtzen du:

a) Salmenta baten faktura egiten denetik, enpresak bezeroaren ordainketa benetan jasotzen duen arte igarotzen den denbora.
b) Enpresak bere produkzio-zikloan inbertitutako moneta-unitatea eskudirutan berreskuratzeko behar duen denbora.
c) Ibilgetuaren bizitza baliagarria.
d) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea.

427. Kontabilitate-egoeren analisia. Bataz besteko heltze-aro (BHA) finantzarioa honela lortzen da:

a) Bataz besteko heltze-aroa + kobratzeko epea.
b) Bataz besteko heltze-aroa – hornitzaileei ordaintzeko epea.
c) Kobratzeko epea – ordaintzeko epea.
d) Ordaintzeko epea – kobratzeko epea.

428. Kontabilitate-egoeren analisia. Froga garratzaren ratioan ez dira honakoak sartzen:

a) Erabilgarri dagoena bakarrik.
b) Izakinak, saltzeko dauden aktibo ez-korrienteak eta aldizkapenak.
c) Merkataritza-kredituak, izakinak, saltzeko dauden aktibo ez-korrienteak eta aldizkapenak.
d) Aktibo korriente guztiak.

429. Kontabilitate-egoeren analisia. Diruzaintzako ratioa honela kalkulatzen da:

a) Erabilgarria/Pasibo korrientea.
b) Bihurgarri ziurra + erabilgarria/Pasibo korrientea.
c) Aktibo korrientea/Pasibo korrientea.
d) Salmenta garbiak/Aktibo korrientea.

430. Kontabilitate-egoeren analisia. Oinarrizko finantzaketa-koefizienteak honakoa neurtzen du:

a) Hornitzaileekin finantzatutako aktiboen ehunekoa.
b) Aktibo ez-korrientea eta gutxieneko kapital korrientea finantzatzeko baliabide iraunkorren egokitzapena.
c) Akziodunaren burtsako kaudimena, merkatuaren gorabeherei aurre egiteko eta finantza-posizio egonkor bati eusteko, bere ondarea arriskuan jarri gabe.
d) Eragiketek sortutako likidezia, hala nola enpresaren ohiko jarduerak eskudiru nahikoa sortzeko eta haren funtzionamenduari eusteko duen gaitasuna.

431. Kontabilitate-egoeren analisia. Kaudimen-ratioa edo berme-ratioa 1etik beherakoa bada, honakoa adierazten du:

a) Ondare-egitura ona.
b) Gehiegizko errentagarritasuna.
c) Kaudimengabezia edo porrota.
d) Merkataritza-marjina handia.

432. Kontabilitate-egoeren analisia. Errentagarritasun Ekonomikoak (ROA), honakoa aztertzen du:

a) Inbertsio guztien errentagarritasuna neurtzen du, enpresak aukeratutako finantzaketa-eredua alde batera utzita.
b) Enpresaren aktibo korrienteen bidez bakarrik lortutako itzultzera neurtzen du.
c) Finantza-gastuak eta zergak kendu ondoren akziodunek lortutako errendimendua adierazten du.
d) Kapital propioaren errendimendua adierazten du, apalankamendu finantzarioaren eragina kontuan hartu gabe.

433. Kontabilitate-egoeren analisia. Errentagarritasun Finantzarioak (ROE) aukera hau ematen du:

a) Enpresak inbertsio guztiekiko sortutako errentagarritasuna neurtzea.
b) Jabeek funts propioekin lortutako errendimendua ezagutzea, apalankamendu finantzarioaren eragina kontuan hartuz.
c) Enpresaren berehalako likidezia-maila zehaztea.
d) Enpresa batek interes eta zergen aurretik mozkinak lortzeko duen gaitasuna kalkulatzea.

434. Kontabilitate-egoeren analisia. Apalakamendu finantzarioa positiboa izango da honako kasu hauetan:

a) Errentagarritasun ekonomikoak zorraren kostua gainditzen duenean, errentagarritasun finantzarioa handituz.
b) Zorraren kostuak errentagarritasun ekonomikoa gainditzen duenean, akzio bakoitzeko irabazi garbiak handituz.
c) Ondare garbiak pasiboa gainditzen duenean, errentagarritasun operatiboa edozein dela ere.
d) Kapitalaren batez besteko kostu haztatua zorraren kostua baino txikiagoa denean.

435. Kontabilitate-egoeren analisia. Froga garratzaren ratioari (*quick ratio*) dagokionez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Enpresak epe laburrean dituen betebeharrei aurre egiteko duen gaitasuna ebaluatzeko aukera ematen du, aktibo korriente guztiak erabiliz, izakinak eta aldizkapenak barne.
b) Likidezia-ratio orokorra baino adierazle zorrotzagoa da, ez baititu kontuan hartzen erabilgarri berehala bihurtzeko aukera mugatua duten aktiboak.
c) Saltzeko dauden aktibo ez-korrienteak kontuan hartzen ditu beti, haien helburua salmenta baita, eta, beraz, berehalako likideziaren parte dira.
d) Enpresak izakinen errotazio handia badu, izakinak ratioan sar daitezke, berehala eskudiru bihurtzen direlako.

436. Kontabilitate-egoeren analisia. PER ratioak (*price earnings ratio*) honakoa zehaztea ahalbidetzen du:

a) Akzioaren kotizazio-prezioaren eta kontabilitate-balioaren arteko erlazioa, akzioak bere ondarearen gainetik edo azpitik kotizatzen duen adieraziz.
b) Akzio baten kotizazio-balioak akzio horren kontabilitate-mozkina zenbat aldiz gainditzen duen.
c) Enpresak dibidendu gisa banatzen duen mozkinaren proportzioa.
d) Akziodunek dibidenduen bidez lortzen duten errentagarritasuna, akzioaren prezioaren gain.

437. Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko AGINDUAREN arabera (EAEko zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan ekonomia- eta finantza-kontrola eta kudeaketa-kontrol iraunkorra gauzatzeari buruzkoa), ekonomia- eta finantza-kontrolak eta kudeaketa-kontrol iraunkorrak erakunde hauei eragiten die:

a) EAEko Administrazio Publikoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoei.
b) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari.
c) Euskal Trenbide Sareari eta Euskal Irrati Telebistari (EITB).
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

438. Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko AGINDUAREN arabera (EAEko zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan ekonomia- eta finantza-kontrola eta kudeaketa-kontrol iraunkorra gauzatzeari buruzkoa), kontrol-jarduera hauek:

a) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatuta egiten dira.
b) Erakunde publikoko zuzendariak hala eskatzen duenean egiten dira.
c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Zuzendariak erabaki ondoren egiten dira.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

439. Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko AGINDUAREN arabera (EAEko zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan ekonomia- eta finantza-kontrola eta kudeaketa-kontrol iraunkorra gauzatzeari buruzkoa), kontrol-lan hori egiteko jarraibideak honako hauek ematen dituzte:

a) Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Zuzendariak.
b) Eusko Jaurlaritzak.
c) Erakunde publiko bakoitzaren zuzendaritzak.
d) Kontu-hartzailetza Nagusiak.

440. Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko AGINDUAREN arabera (EAEko zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan ekonomia- eta finantza-kontrola eta kudeaketa-kontrol iraunkorra gauzatzeari buruzkoa), erakundeak behin-behineko txostenaren aurrean alegazioak aurkezteko duen epea honakoa da:

a) Behin-behineko txostena jasotzen denetik, 5 egun baliodun.
b) Behin-behineko txostena jasotzen denetik, 10 egun.
c) Behin-behineko txostena jasotzen denetik, 15 egun.
d) Behin-behineko txostena jasotzen denetik, 30 egun

441. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, kontabilitate-eragiketak modu agregatuan aurkez daitezke honako kasu hauetan:

a) Denboraldika, orden kronologikoa jarraituz
b) Gaia bera denean.
c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak hala erabakitzen duenean.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

442. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, kontabilitate-erregistroak epe batez gordeko dira. Adieraz ezazu zein den epe hori:

a) 5 urte.
b) 10 urte.
c) 15 urte.
d) Mugarik gabe kontserbatzen dira.

443. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, Dekretu horretan aurreikusitako epean kontabilitate-dokumentu eta -erregistro guztiak behar bezala eta ordenan kontserbatzea honako honi dagokio:

a) Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.
b) Dagokion saileko zuzendaritzari.
c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

444. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, kontabilitate-kontrola helburu honekin gauzatuko da:

a) Garrantzi ekonomikoa duen eragiketa oro behar bezala kontabilizatzeko.
b) Iruzurrezko eragiketa ekonomikoak kontabilizatzea eragozten duten akatsak antzemateko.
c) Garrantzi ekonomikoa duen edozein eragiketa fiskalizatzeko.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

445. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak behar baino ordainketa gehiago edo diru-sarrera gutxiago egin direla ohartarazten duenean:

a) Diziplinazko espedientea irekiko dio akats horren arduradunari.
b) 15 eguneko epea irekiko du dagokion erakundeak egitate hori konpon dezan.
c) Eskumena duen organoari jakinaraziko dio, administrazio-espedienteak has daitezen, bidezkoak diren itzulketak eta diru-sarrerak egiteko.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

446. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, kontrol ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa kontrola honela egiten da:

a) Ondorengo berrikuspenaren bidez, auditoretza-teknikak erabiliz.
b) Ondorengo berrikuspenaren bidez, nahitaez aurrez aurrekoa, auditoretza-teknikak erabiliz.
c) Aurretiko berrikuspenaren bidez, estimazio estatistikoaren bidez.
d) Aurretiko auditoretza-berrikuspenen bidez.

447. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, adieraz ezazu zein den eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia ebaluatzen dituen auditoretza:

a) Betetze-auditoretza.
b) Kudeaketa-auditoretza.
c) Barne-berrikuspeneko auditoretza.
d) Finantza-auditoretza.

448. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, auditoretza finantzarioak:

a) Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta aurrekontua exekutatzearen egintzak eta prozedurak, aplikatu beharreko arauetara egokitu diren zehazten du.
b) Baliabide publikoen kudeaketan lortutako eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia ebaluatzen ditu.
c) Aplikatutako kudeaketa ekonomiko-finantzarioko prozedurak ebaluatzen ditu, hobekuntzak gomendatzeko eta proposatzeko helburuarekin.
d) Informazio ekonomiko-finantzarioa berrikusten du, informazio horrek irudi fidela erakusten duen aztertzeko.

449. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, betetze-auditoretzak:

a) Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta aurrekontua exekutatzearen egintzak eta prozedurak, aplikatu beharreko arauetara egokitu diren zehazten du.
b) Baliabide publikoen kudeaketan lortutako eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia ebaluatzen ditu.
c) Aplikatutako kudeaketa ekonomiko-finantzarioko prozedurak ebaluatzen ditu, hobekuntzak gomendatzeko eta proposatzeko helburuarekin.
d) Informazio ekonomiko-finantzarioa berrikusten du, informazio horrek irudi fidela erakusten duen aztertzeko.

450. EAEko Administrazio Publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, prozeduren eta barne-kontrolaren berrikuspenaren auditoretzak:

a) Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta aurrekontua exekutatzearen egintzak eta prozedurak, aplikatu beharreko arauetara egokitu diren zehazten du.
b) Baliabide publikoen kudeaketan lortutako eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia ebaluatzen ditu.
c) Aplikatutako kudeaketa ekonomiko-finantzarioko prozedurak ebaluatzen ditu, hobekuntzak gomendatzeko eta proposatzeko helburuarekin.
d) Informazio ekonomiko-finantzarioa berrikusten du, informazio horrek irudi fidela erakusten duen aztertzeko.

451. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, kontrol ekonomikoari dagokionez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Barneko kontrol ekonomikoak hauek dira: kontabilitate-kontrola, kontrol kontu-hartzailea eta erreklamazio ekonomiko-administratiboen bidez egindako kontrola.
b) Barneko kontrol ekonomikoak hauek dira: kontabilitate-kontrola, kontrol kontu-hartzailea, erreklamazio ekonomiko-administratiboen bidez egindako kontrola eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako kontrola.
c) Kanpoko kontrol ekonomikoak hauek dira: erreklamazio ekonomiko-administratiboen bidez egindako kontrola eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako kontrola.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

452. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Enpresen kontabilitate-araubideari atxikirik egongo dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak, sektore publikoko partzuergoak eta sektore publikoko fundazioak.
b) Enpresen kontabilitate-araubideari atxikirik egongo dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak eta sektore publikoko fundazioak.
c) Kontabilitate publikoaren araubideari atxikirik egongo dira EAEko Administrazio orokorra, erakunde autonomoak, sektore publikoko partzuergoak eta sektore publikoko fundazioak.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

453. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, kontabilitatearen helburua dela eta, aukera ezazu baieztapen OKERRA:

a) Kontrol kontu-hartzailea gauzatzea.



b) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak egitea eta haien likidazioaren kontuak ematea, baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko urteko kontuak egitea ere.
c) Erabakiak hartzea, arlo politikoan bakarrik.
d) Euskadiko kontu ekonomikoak egitea.

454. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, kontabilitate-kontrolaren helburua honakoa da:

a) Sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren jarraipena egitea, eragiketa guztiak kontabilitatean behar bezala jasota daudela ziurtatzeko eta bermatzeko.
b) Sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren barne-kontrola egitea.
c) Aurrekontu Orokorren likidazioa egiaztatzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

455. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, kontrol kontu-hartzailearen helburua honakoa da:

a) Sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren jarraipena egitea, eragiketa guztiak kontabilitatean behar bezala jasota daudela ziurtatzeko eta bermatzeko.
b) Sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren barne-kontrola egitea.
c) Aurrekontu Orokorren likidazioa egiaztatzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

456. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, kontrol kontu-hartzaileak hainbat modalitate ditu. Aukera ezazu baieztapen OKERRA:

a) Kanpoko kontrol ekonomiko-finantzarioa.
b) Kontrol ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketako kontrola.
c) Kontrol ekonomiko-fiskala.
d) Kontrol ekonomiko-arautzailea.

457. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, kontrol ekonomiko fiskala honakoa da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, erakunde autonomoen eta sektore publikoko partzuergoen jarduera ekonomikoa fiskalizatzea, aplikagarri diren xedapenak betetzen direla bermatzeko.
b) Sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioak hauek betetzen dituela egiaztatzea: jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duten xedapenak eta jarraibideak eta, erregulartasun-, legezkotasun-, eraginkortasun-, efizientzia- eta ekonomia-printzipioak.

c) Administrazio Publikoko organoek, eskumena dutenek, egingo dituzten eduki ekonomikoko lege-aurreproiektuen eta arau-xedapenen proiektuen fiskalizazioa.
d) Administrazio Publikoko organo eta erakunde guztien sorreraren eta ezabaketaren ekonomia- eta antolaketa-arloak fiskalizatzea, baita horien aldaketak eta berregituraketak ere.

458. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, Kontrol ekonomiko-arautzailea honakoa da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, erakunde autonomoen eta sektore publikoko partzuergoen jarduera ekonomikoa fiskalizatzea, aplikagarri diren xedapenak betetzen direla bermatzeko.
b) Sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioak hauek betetzen dituela egiaztatzea: jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duten xedapenak eta jarraibideak eta, erregulartasun-, legezkotasun-, eraginkortasun-, efizientzia- eta ekonomia-printzipioak.
c) Administrazio Publikoko organoek, eskumena dutenek, egingo dituzten eduki ekonomikoko lege-aurreproiektuen eta arau-xedapenen proiektuen fiskalizazioa.
d) Administrazio Publikoko erakundeen arlo ekonomikoak fiskalizatzea.

459. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontuan hartuta *Gestión de la logística de la empresa: Planificación de la cadena de suministros.* Logistika-sistemako inbertsioaren etekinei dagokienez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) ROLA honela kalkulatzen da: (Sarrerarako ekarpena ken Logistika-eragiketaren kostuak)/ Logistika-aktiboaren kapitalaren kostua.
b) ROLA honela kalkulatzen da: Sarrerarako ekarpena / Logistika-aktiboaren kapitalaren kostua.
c) ROLA honela kalkulatzen da: (Sarrerarako ekarpena ken Logistika-eragiketaren kostuak/ Logistika-aktiboaren kapitalaren kostua) / Logistika-aktiboaren kapitalaren kostua.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

460. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontuan hartuta *Gestión de la logística de la empresa: Planificación de la cadena de suministros.* Biltegiko kostuei dagokienez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Azpiegitura-kostuak kostu aldakorrak dira, beraz biltegiratutako produktuen bolumena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da produktu bakoitzaren kostua.
b) Azpiegitura-kostuak kostu finkoak dira, beraz, biltegiratutako produktu-bolumena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da produktu bakoitzaren kostua.
c) Egitura-kostuak kostu aldakorrak dira, beraz, biltegiratutako produktu-bolumena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da produktu bakoitzaren kostua.
d) Egitura-kostuak kostu finkoak dira, beraz, biltegiratutako produktu-bolumena handitu

arren, ez da aldatuko produktu bakoitzaren kostua.

461. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontuan hartuta *Gestión de la logística de la empresa: Planificación de la cadena de suministros.* Eskaera puntuari dagokienez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Honela kalkulatzen da: Segurtasun-stocka * Kontsumo normala.
b) Honela kalkulatzen da: Hornikuntza-epea * Kontsumo normala.
c) Honela kalkulatzen da: Segurtasun-stocka * Hornikuntza-epea.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

462. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontuan hartuta *Gestión de la logística de la empresa: Planificación de la cadena de suministros.* Erabilitako azaleraren optimizazioan oinarritutako metodoak direla eta, aukeraz ezazu baieztapen OKERRA:

a) Apalategien gainean blokean egindako biltegiratzea da %100a betetzea ahalbidetzen duen metodo bakarra.
b) Apalategien gainean blokean egindako biltegiratzea bi eratara egiten da: driver eta dinamikoa.
c) Bloke trinkoetan biltegiratzen denean, hau da egiten dena: biltegiratu nahi den produktu desberdin adina bloke eraikitzea; hala, erreferentzia bereko produktu guztiak batera biltegiratzen dira.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

463. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontuan hartuta *Gestión de la logística de la empresa: Planificación de la cadena de suministros.* Biltegiratzea ona izateko, ezaugarri hauek hartu behar dira kontuan: Aukera ezazu baieztapen OKERRA.

a) Produktuaren ezaugarriak; adibidez, bolumena eta pisua, hauskortasuna eta erresistentzia, eta arriskugarritasuna.
b) Iraungitzea eta zaharkitzea; adibidez, iraupen luzeko produktuak, produktu galkorrak eta zaharkitzeko arriskua duten produktuak.
c) Eraginkortasuna; adibidez, lapurretaren aurkako segurtasun-baldintzak eta produktua berregokitzeko beharra.
d) Eskariaren ezaugarriak; adibidez, gutxieneko salmenta-unitatea eta kode-sistemak.

464. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontuan hartuta *Gestión de la logística de la empresa: Planificación de la cadena de suministros.* Biltegiratze kostuei dagokienez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Azpiegituren kostuak; adibidez, finantza izaerakoak, eraikinaren amortizazioak, instalazioen amortizazioak (instalazio operatiboenak).
b) Kudeaketa-kostuak; adibidez, aseguruak eta zergak, zuzeneko langileak.



c) Azpiegituren kostuak; adibidez, finantza izaerakoak, eraikinaren eta bere instalazioen amortizazioak (instalazio operatiboak ez direnenak).
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

465. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontuan hartuta *Gestión de la logística de la empresa: Planificación de la cadena de suministros.* Banaketa-biltegi bat ezartzean kontuan hartu behar diren arloei dagokienez, aukera ezazu baieztapen zuzena:

a) Kokalekua aukeratzerakoan, besteak beste, honakoak hartu behar dira kontuan: nibelazioa eta zimenduak.
b) Kokalekua aukeratzerakoan, besteak beste, honakoak hartu behar dira kontuan: instalazio elektrikoa eta sanitarioa.
c) Kokalekua aukeratzerakoan, besteak beste, honakoak hartu behar dira kontuan: trenbideko garraioa eta errepideko garraioa.
d) Kokalekua aukeratzerakoan, besteak beste, honakoak hartu behar dira kontuan: lurren kostua eta telekomunikazioak.

466. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontuan hartuta *Gestión de la logística de la empresa: Planificación de la cadena de suministros.* Kalkula ezazu produktu baten eskaera puntua, datu hauek kontuan hartuta, eta aukera ezazu baieztapen zuzena:

- **Urteko kontsumoa: 240.000 kg.**
- **Segurtasun-stocka: 15 eguneko beharrak asetzen ditu.**
- **Hornikuntza-epea: 1 hilabete.**

a) Eskaera-puntua hau da: 50.000 kg.
b) Eskaera-puntua hau da: 160.000 kg.
c) Eskaera-puntua hau da: 20.000 kg.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

467. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontuan hartuta *Gestión de la logística de la empresa: Planificación de la cadena de suministros.* Materialak garraioaren ezaugarrien arabera sailka ditzakegu. Aukera ezazu baieztapen OKERRA:

a) Garraioaren ezaugarriak dira, besteak beste, pisua, bolumena eta tamaina.
b) Maneiuaren ezaugarriak dira, besteak beste, erresistentzia eta zurruntasuna.
c) Biltegiratzearen ezaugarriak dira, besteak beste, hegakortasuna eta erregaitasuna.
d) Trafikoaren ezaugarriak dira, besteak beste, bidaltzeko baldintzak.

468. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Logistikaren definizioa. Adieraz ezazu ondorengo hauetatik, zein EZ dagoen logistika modernoaren definizioaren barruan:

a) Ondasunen eta zerbitzuen fluxu eta biltegiratze eraginkorra.
b) Informazioaren kudeaketa, jatorritik kontsumora.



c) Lehengaietatik birziklatzerainoko fluxua kontrolatzea.
d) Kontsumitzaileari saltzeko azken prezioa zehaztea.

469. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Hornidura katearen edo *Supply Chain Management* (SCM) katearen kudeaketak honakoa azpimarratzen du: ezaugarri hauek ditu:

a) Barneko banaketa fisikoa bakarrik.
b) Marketinaren, logistikaren eta produkzioaren arteko eta kateko enpresen arteko elkarreraginak.
c) Zuzeneko hornitzaileekin koordinazio logistikoa bakarrik.
d) Garraio kostuak murriztea soilik, baldin eta enpresari badagozkio.

470. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Logistikako jarduerak. Adieraz ezazu hauetako zein den logistikako funtsezko jarduera berehalako katean:

a) Uneko KPIaren arabera eguneratutako prezioak finkatzea.
b) Linearen gaineko, edo *above the line* (ATL), publizitatea.
c) Garraio-modua eta garraio-zerbitzua hautatzea.
d) Marka kanpainak diseinatzea.

471. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Funtzio zatikatuetatik Hornidura Katearen edo *Supply Chain Management* (SCM) Kudeaketarainoko bilakaerak honakoa ekarri zuen:

a) Marketinarekin lankidetza ezabatzea eta publizitate-zerbitzuak kontratatzea.
b) Inbentarioak zentralizatzea eta erosketak kentzea.
c) Logistika-jarduerak beste funtzio batzuekin integratzea, denboran zehar.
d) Ohiko logistika militarrera itzultzea.

472. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Logistikako interfazeak marketinarekin eta produkzioarekin. Adieraz ezazu zein den logistika-marketin interfazeko ohiko puntu bat:

a) Kalitate-kontrola.
b) Banaketa-kateak.
c) Prebentziozko mantentzea.
d) Solairuaren plangintza.



473. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Logistikaren funtsezko helburu bat honakoa da:

a) Kostuak maximizatzea, zerbitzua eta abian jartzea areagotzeko.
b) Biltegien eta produkzio-tailerren kopurua handitzea.
c) Aldaketak ezabatzea, kontrolak areagotuz.
d) Denborak eta kostuak minimizatzea, nahi den zerbitzu-mailari eutsiz.

474. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Ezaugarri logistikoen araberako sailkapena. Adieraz ezazu zein EZ dagokion "trafikoaren ezaugarriei":

a) Erosketa- eta salmenta-loteen tamaina.
b) Bidalketen maiztasuna.
c) Bidalketen baldintzak.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

475. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Hornidura-katearen kostuak. Adieraz ezazu hauetako zein EZ den hornidura-katearen berezko kostua:

a) Intsumoen kostuak eta manufakturen kostuak.
b) Komunikazioen kostuak
c) Inbentarioen kostuak eta garraioen kostuak.
d) Saltokiko marketineko kostu finantzarioak.

476. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Inbertsio logistikoaren errendimenduak (ROLA) honakoak neurtu nahi ditu:

a) Biltegiko langilearen produktibitatea lan-aldian, astegunetan dauden jaiegunak kenduta.
b) Aktibo logistikoen itzulera, ekarpenaren, kostu operatiboen eta kapital-kostuaren arabera.
c) Salmenten marjina gordina.
d) Enpresaren kontabilitateko ROI osoa.

477. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Urtaroko eskaria duten enpresetan, produktu bukatuen biltegia:

a) Ezinbestekoa da produkzioa < behe-denboraldiko salmentak direnean.
b) Ezinbestekoa da produkzioa > behe-denboraldiko salmentak direnean.
c) Zerbitzuei bakarrik aplikatzen zaie.
d) *Dropshipping*-agatik ordezkatzen da.



478. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Adieraz ezazu faktore hauetatik zein dagokion eraikuntzaren kostuari, eta EZ kokalekuaren aukeraketari:

a) Trenbideko garraioa.
b) Lurraren kostua.
c) Instalazio elektrikoa eta sanitarioa.
d) Errepideko garraioa.

479. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Biltegien atalak. Adieraz ezazu zein den biltegiko lan-fluxuen orden logikoa:

a) Jasotzea → Biltegiratzea → Eskaerak prestatzea → Bidalketa.
b) Bidalketa → Eskaerak prestatzea → Jasotzea → Biltegiratzea.
c) Biltegiratzea → Jasotzea → Eskaerak prestatzea → Bidalketa.
d) Eskaerak prestatzea → Jasotzea → Bidaltzea → Biltegiratzea.

480. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Biltegiratze-sistema hautatzea. Biltegiratze-sistema aukeratzeko irizpide nagusi bat hau da:

a) Eraikinaren perimetroa maximizatzea eta hezeguneetatik urrun egon dadin bilatzea.
b) Espazioaren erabilera optimizatzea (azalera/bolumena).
c) Altuera erabilgarria minimizatzea.
d) Edozein mekanizazio saihestea.

481. Erosketa industrialen kudeaketa, Sarrera. Adieraz ezazu zerk bereizten dituen "erosketa produktiboak":

a) Inoiz ez dira azken produktuan sartzen, behin erabili ondoren bota egiten diren hornikuntza-erosketak dira.
b) Mantentze-lanak, konponketak eta eragiketak (MRO erdarazko sigletan) eta zerbitzu orokorrak soilik sartzen dira.
c) Azken produktuari gehitzen zaizkio edo jarduera industrialarekin zuzenean lotuta daude.
d) Makinetako inbertsioak baino ez dira.

482. Erosketa industrialen kudeaketa, Sarrera. Adieraz ezazu zein erantzukizun nagusik bereizten dituen "Erosketak" eta "Hornikuntza":

a) Erosketak stockak kudeatzen ditu eta beharrezko garraioak antolatzen ditu; Hornikuntzak kontratuak eta baldintzak definitzen ditu.
b) Erosketak hornitzaileen merkatuan estrategia definitzen du; Hornikuntzak zerbitzu-maila eta gauzatzea ziurtatzen ditu.



c) Erosketak garraioak antolatzen ditu, Hornikuntza prezioak negoziatzen ditu.
d) Ez dago desberdintasunik: sinonimoak dira.

483. Erosketa industrialen kudeaketa, Sarrera. Adieraz ezazu zein EZ den erosketa industrialen prozesuko ohiko eragileetako bat:

a) Erabiltzailea.
b) Kanpo-preskriptorea.
c) Hornitzailea.
d) Kanpo-auditorea.

484. Erosketa industrialen kudeaketa, Sarrera. Adieraz ezazu zein balio-formula proposatzen duen erosketak, ekarpena orekatzeko:

a) Prezioa maximizatzea eta epea minimizatzea, kontratuaren baldintzak errespetatuz.
b) Hornitzaileen mozkina maximizatzea eta arriskuak minimizatzea.
c) Hornitzaile eta kontratu kopurua minimizatzea.
d) Hornikuntza guztia kanpora ateratzea.

485. Erosketa industrialen kudeaketa, Sarrera. Adieraz ezazu faktore hauetako zeinek areagotzen duen erosketen kudeaketaren konplexutasuna:

a) Lehengaien eta bukatutako produktuen prezioen egonkortasunak.
b) Tokiko produkzioak, beti.
c) Erreferentzia-kontratu indexatuak eta moneta-herrialde arriskuak.
d) Nazioarteko logistika ezabatzeak.

486. Erosketa industrialen kudeaketaren antolaketa ingurune globaletan. Erosketa-funtzioaren "lau esparruek" dena hartzen dute kontuan, honakoa IZAN EZIK:

a) Produktuaren kudeaketa.
b) Prozesuaren kudeaketa (hornikuntza).
c) Kontratuaren kudeaketa.
d) Salmenten kudeaketa.

487. Erosketa industrialen kudeaketaren antolaketa ingurune globaletan. Adieraz ezazu zein den arriskuetako bat "prezioan" bakarrik oinarritzen bagara, erosketa-taldean funtzioak sartu gabe (prozesuen araberako integrazioa):

a) "Preziorik onenak" "kostu txarragoetan" bihurtzea kalitate/zerbitzuko akatsengatik.
b) Ingeniaritza-sormen handiagoa.



c) KPIen (funtsezko adierazlea edo *Key Performance Indicator*) igoera automatikoa jakinarazpenik egitea beharrezkoa izan gabe.
d) Lead time-a ezabatzea

488. Erosketa industrialen kudeaketaren antolaketa ingurune globaletan. Erosketen egitura zentralizatuaren abantaila bereizgarri bat honakoa da:

a) Arintasuna tokiko, nazioko eta Europako berezitasunen aurrean.
b) Eskala-ekonomiak eta espezializazio tekniko/sektorialak.
c) Negoziatzeko gaitasuna murriztea.
d) Prozesuen estandarizazio txikiagoa.

489. Erosketa industrialen kudeaketaren antolaketa ingurune globaletan. "Hornidura globala duen tokiko erosketan" (antolaketa-aukera), logika honakoa da:

a) Eskualdeko, tokiko eta nazioko kontratuak zentralizatzea, eta tokian hornitzea.
b) Hornitzaile globalei egindako erosketak tokian kudeatzea, malgutasuna lortzeko.
c) Eskala-ekonomiagatik, hornitzaile bakar batekin hornitzea.
d) Arrisku txikiko tokiko hornitzaileak bakarrik mantentzea.

490. Erosketa industrialen kudeaketa. Erosketen kudeaketa estrategikoa. Adieraz ezazu zein fasetan gauzatzen den proposatutako erosketa-estrategiaren hedapena (KATAIA eredua):

a) Diagnostikoa, formulazioa, ezarpena eta berrikuspena (ikaskuntza).
b) Diseinua, auditoretza, zehapena eta txostena.
c) Lizitazioa, esleipena, jasotzea eta kanpo-auditoreak egiaztatutako faktura.
d) AMIA analisia, marketina eta komertziala.

491. Erosketa industrialen kudeaketa. Erosketen kudeaketa estrategikoa. Adieraz ezazu nola erlazionatzen diren "helburu estrategikoak" eta "erosteko estrategiak", kategorien arabera:

a) Helburu estrategikoak etengabeko operatiboak dira, eta estrategiak, berriz, uneko baliora deskontatutako finantzarioak.
b) Zeharkakoei bakarrik aplikatzen zaie.
c) Estrategiek adierazleak definitzen dituzte, eta helburuek hornitzaileak.
d) Helburuak ("zer") estrategiekin lotzen dira ("nola"), eta kategorien arabera bereiz daitezke.



492. Erosketa industrialen kudeaketa. Hornitzaileen politikak eta erosketa-familien azterketa eta hornitzaileen integrazioa. Adieraz ezazu zertarako balio duen "merkatu hornitzailearen" segmentazioak familien/kategorien arabera:

a) Beti preziorik txikiena ezartzeko.
b) Errekerimenduei lehentasuna emateko, "non/nori erosi" aukerak aztertzeko eta familiaren/kategoriaren araberako politikak definitzeko.
c) Erosketa globala baztertzeko.
d) Hornitzaileen homologazioaren ordez hornitzaile fidagarriak aukeratzeko, erosketak kreditura egin ahal izateko finantzaketa arazorik gabe.

493. Erosketa industrialen kudeaketa. Hornitzaileen politikak eta erosketa-familien azterketa eta hornitzaileen integrazioa. Adieraz ezazu zer bilatzen duten hornitzaileekin "integrazio-ibilbideek":

a) KPI (kudeaketako funtsezko adierazleak edo *key performance indicators*) kopurua murriztea eta SQA (hornitzaileen kalitatea edo *Suppleir Quality Assurance*) erabiltzea.
b) Informazio teknikoaren partekatzea saihestea.
c) Baterako-jarduna handitzea (kostua, kalitatea, epea), lankidetza-maila gero eta handiagoen bidez.
d) SQA (hornitzaileen kalitatea edo *Suppleir Quality Assurance*) alde batera uztea.

494. Erosketa industrialen kudeaketa. Hornitzaileen politikak eta erosketa-familien azterketa eta hornitzaileen integrazioa. Adieraz ezazu zer arrisku mota EZ den aipatzen kategoriaren arriskuaren kudeaketan:

a) Kategoriaren arriskua (adibidez, konplexutasun teknologikoa).
b) Hornitzailearen arriskua.
c) Herrialdearen arriskua.
d) Arrisku meteorologikoa ardatz bakar gisa.

495. Erosketa industrialen kudeaketa. Erosketa-helburuen hedapena. Adieraz ezazu zein EZ den "Erosketen kudeaketa Planaren" osagaia:

a) Kategorien/familien araberako kudeaketa.
b) Kategoriak familiaka lehenestea.
c) Erosketen aginte-taula.
d) Azken bezeroen marketin-plana.

496. Erosketa industrialen kudeaketa. Erosketa-helburuen hedapena. "Erosketen aginte-taula" erabiltzen da...

a) Erosketa-estrategia eta horren gauzatzea kontrolatzeko eta neurtzeko adierazleen



bidez.
b) Bankuko diruzaintza kudeatzeko.
c) Lehengaien inbentarioak erregistratzeko eta hornikuntza ezaren ondoriozko produkzio-hausturak saihesteko.
d) Aktiboen amortizazioak kalkulatzeko.

497. Erosketa industrialen kudeaketa. Kontratuen kudeaketa. "Kontratuak eta hornitzaileen erreklamazioak" atalaren arabera, ez-betetzeen aurrean erreklamazio eraginkorra honela egingo da:

a) Ahoz, denbora arintzeko eta aurrezteko eta hornitzaileen ahalik eta erreklamazio gehienei erantzuteko.
b) Kontratuan oinarrituz, ez-betetzea dokumentatuz eta adostutako prozedura aktibatuz (epeak, zigorrak, konponbideak).
c) Ekitaldi bukaerara arte itxaronez.
d) Saltzailearengana bakarrik joanez, formaltasunik gabe.

498. Erosketa industrialen kudeaketa. Erosketen kudeaketan negoziazioa. Adieraz ezazu zerk bereizten dituen erosketen negoziazio profesionala eta "erregateoa":

a) Erregateoak datu gehiago erabiltzen ditu.
b) Erregateoa aldagi anitzekoa da eta negoziazioa, ez. Erregateoa egiteak malgutasun handiagoa ematen du, beti ahoz egiten delako eta ez duelako kontraturik behar.
c) Negoziazioak balioa duten akordioak eta harreman iraunkorrak bilatzen ditu, eta erregateoa uneko prezioan zentratzen da.
d) Negoziazioak ez du prestaketarik behar.

499. Erosketa industrialen kudeaketa. Erosketen kudeaketan negoziazioa. "Interesen araberako negoziazioa"k (posizionamendu gogor/leuneko negoziazioaren aldean) ezaugarri hauek ditu:

a) Elkarren onurak bilatzen ditu, azpiko beharretatik abiatuta.
b) Muturreko posizioak finkatzen ditu eta bukaeran amore ematea.
c) Informazioa ezkutatzea emakidak behartzeko eta aurreikusitako helburuak lortzeko.
d) Aukerak sortzea saihestea.

500. Erosketa industrialen kudeaketa. Erosketen kudeaketan negoziazioa. "Eroslearen posizioan", negoziazioaren emaitza honakoak konbinatzearen araberakoa da:

a) "Boterea" bakarrik. Erosketen kudeaketan negoziatzen duenak autoritarioa izan behar du eta negoziazio guztiak irabaz ditzakeela sinetsi behar du.
b) "Boterea" eta "nahi izatea", baina ez "jakitea".
c) "Negoziatzeko boterea", "gauzatu nahi izatea" eta "egiten jakitea", prestakuntza–



elkarrizketa–teknikak dituen ziklo baten barruan.

d) Egokitzapenik gabeko gidoi finko bat. Malgutasuna eta egokitzapena dira erosketen kudeaketen negoziazio guztietan kontuan hartu beharreko faktoreak.